

Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak Bermatzeko Legearen berrikuspena: hausnarketaren apologia

[Versión en castellano: <<https://doi.org/10.5569/1134-7147.64.05.es>>]

Arantxa Orbegozo Eizagirre

Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza, Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila
Eusko Jaurlaritza
<a-orbegozo@euskadi.eus>

Gizarteratzeko eta diru-sarrerak bermatzeko Sistemaren inguruan aldaketa-proposamenak egiten ari dira, izan Legebiltzarrean aurkeztutakoak, izan hainbat entitate eta elkartek landutakoak. Testuinguru horretan, proposamen ofizialaren zenbait alderdi azaltzen dira, batez ere, interesdun guztiek Sistemaren gaineko hausnarketak egiteko eta, horien ondorioz, proposamenak aurkezteko, Legea bera eta dekretuak garatzean. Kontrako iritziak oinarritzat hartzen dira, gaien alderdi gehienak kontuan izateko.

GAKO-HITZAK:

Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta, gizarte-prestazioak, eskubide subjektiboak, araudiaren berrikusketa.

Se están planteando propuestas relativas a la modificación del Sistema de Garantía de Ingresos y para la Inclusión Social, tanto en el Parlamento como en otros ámbitos, desarrolladas por determinadas entidades y asociaciones. En ese contexto, se explican algunos aspectos de la propuesta oficial, sobre todo para que todas las personas interesadas puedan aportar sus reflexiones respecto a dicho Sistema y, en consecuencia, puedan hacer aportaciones en el desarrollo tanto de la propia Ley como de sus decretos. Se tienen en cuenta opiniones contrapuestas como base para considerar los variados aspectos de los temas tratados.

PALABRAS CLAVE:

Renta de garantía de ingresos, prestaciones sociales, derecho subjetivo, revisión normativa.

1. Introito¹

Fedeari dagokionez, eztabaidaren helburua ez da baiezia bilatzea, baizik eta aurkariari erakustea erremediorik gabeko gorra eta itsua dela ‘gertaerak’ ulertzeko, eta aurreiritzi maltzuraren aldeko bihurtu dela. Asmo txarren epai horrek ez-funtsezkotzat jotzen du egitasun propioa frogatzea. Bene-benetan aurkariari jaramonik ez egitea aholkatzen da, bestearekiko enpatia sentitzea akats hutsa da, ia-ia bere buruaz beste egiteko modukoa.

BAUMAN (2017)

Aspaldi Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta berri bihurtu zen. Konspirazio-zaleen taldekoa izango banintz, norbaitek bihurtu zuela esango nuke; baina bide horretan pertsonen kontrako mina ugari daudenez, hausnarketari ekingo diot, ahalik eta ikuspuntu malgusetatik. Malgutasuna ezinbestekoa da, bai minak saihesteko, bai gogoeta bultzatzeko. Horregatik Bauman jauna zenaren hitzak sarrera gisa erabili ditut. Egun, ematen du testuinguru guztietan bat-bateko burutazioari benetako hausnarketari baino garrantzia handiagoa ematen diogula; bertsolarien arteari errespetua galtzeaz gain, mesede txikia egiten ditugu gure garapen pertsonalari eta, ondorioz, gizartearenari.

Oro har, jarrera horrek ez du ustezko ondorio latzik, lagunen arteko eztabaidak gogortzeaz aparte; gai garrantzitsuekin jarrera bera izanda, aldiz, gauzak erabat korapilatzen dira. Eta hori da, hain justu ere, nire beldur nagusia, Diru Sarrerak Bermatzeko Errentaren gaineko eztabaidei dagokionez, Legearen aldaketa zeruertzean egonda.

Aldaketa berria lehen urratsetan dago eta denok daukagu gure iritzia emateko aukera oraindik; horregatik idazten ari naiz, diru-laguntzen beharra argi ikusten dugun guztion ikuspuntuak garrantzitsuak direlako Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak Bermatzeko Sistemaren (hemendik aurrera, Sistema) etorkizuna bermatzeko. Kontrakoenak ere eskertuko ditut, erabilgarriak direlako argudio berriak sortzeko eta, bestalde, alde egoteak batzuetan bista mugatzen digulako. Hori bai, aldekoen eta kontrakoen ikuspuntuak erabilgarriak izango dira baldin eta argudioarekin batera badatoz, gure ideien egitasuna —edo oinarria, behintzat— argudiatzea funtsezkoa baita.

Jarraitu baino lehen esan beharra dago nire asmoa ez dela Sistemaren onura orokorrak egiaztatzea —Elizak baditu doktoreak—, baizik eta egunerokotasunean ikusitakoa eta ikasitakoa (susmo eta guzti) eskaintzea, nahi duenak bere hausnarketarako erabili dezan. Partekatzea maitatzea da, edo hala diote...

Aurkibide gisa, honako gai orokor hauek landuko ditut:

- DBEren kudeaketa aldatu zenean gertatutakoa.
- Sistemaren helburuak.
- Gai ekonomikoak.
- Euskal Autonomia Erkidegoan benetan bizi izanaren egiaztatze moduak.
- Lotura etxebizitza izateko eskubide subjektiboarekin.
- Ondorioak GLLetarako.
- Kudeaketaren gorabeherak.
- Koordinazioa, iruzurra eta beste gai delikatu batzuk.

2. Ustezko oinarritzko akatsa, benetan hasi baino lehen...

DBEren kudeaketa aldatu zenetik gutxitan hitz egin da aldaketari berari buruz. Askotan kritikatu da Lanbideren lana —nik neuk ederrak bota ditut—, baina Lanbidek egindakoari eta hartutako erabakien oinarriei buruzko hausnarketa gutxi aditu ditut. Seguru asko, nik uste baino gehiago egin dira, baina foro jakin batzuetatik irten gabe.

Agerikoa da orain ez daukala zentzurik zikinkeria alfonbra-barrenetatik ateratzeak, errudunen bila; hala ere, behar-beharrezkoa da izandako arazoan oinarria gogoan izatea Legearen aldaketa berriro aurrean daukagulako. Nire ustez arazo nagusiak honako hauek izan ziren:

- Gehiegizko konfiantza —ausardia, esango nuke— erabakiak hartzeko.
- Alde batera uztea aditu batzuen iritzia.
- Alde batera uztea era guztietako profesionalen esperientzia praktikoa.
- Presaka ibiltzea.
- Erantzukizun gehiegi uztea inolako esperientziarik gabeko langileen gain.

Hori guztia larria izan arren, ez da batere originala; izan ere, izen propioa erabilgarri daukagu: ‘planifikazioaren gezurra’, Tversky eta Kahnemanek erabiltzen dutena planak eta aurreikuspenak deskribatzeko kontuan izaten badituzte egoerarik onena, planteamendu errealistak alboan utzita eta antzeko egoeretan gertatutakoa saihestuz:

Sarritan (ez beti) pertsonak erabakitzen dute proiektu arriskutsuak gauzatzea, baikorregiak direlako, aurre egin behar zaien gertakizunei dagokienez (Kahneman, 2014).

Denok gaude gezurra horretan erortzeko arriskuan, ez delako aurreko edo egungo politikarien gaitasun berezia. Denok plangintzak asmatzen ditugu eta uste dugu gogoan izan ditugula alderdi eta arrisku guztiak. Baina, zoritxarrez, errealitateak beste bide batetik ihes egingo du, batez ere, susmagarritzat

¹ Espainiako antzerki klasikoan, hitzaurrea antzerki-lanaren argudioa azaltzeko eta publikoari bihozberatasuna eskatzeko (RAEK *dixit*).

eta arriskutsutzat jotzen baditugu gainontzekoen iritzi guzti-guztiak. Erortze-arriskuan egonda, Joseba Sarrionandia (1997) laguntzera datorrigu:

Gaur egun gizarte konpetitiboak ‘hoberena’ izateko antsia ematen dio jendeari. Tamalgarria gero, akaso, ‘hoberenak’ izatea ‘onak’ izan gabe.

Daukagun araudia ez da onena; ezta Legebiltzarrean aurkeztutako proiektua ere; eta azkenean onartuko dena ez da onena izango. Berma dezakegun gauza bakarra da proiektu on bat bultzatzea, bakoitzak dagokion —edo barneratu duen— erantzukizunetik.

Eta horretarako nahitaezkoa da aurkeztutakoaren gorabeherak ezagutzea. Orain azalduko dudana batzuentzako ezaguna izango da beharbada; baina, uste dut interesdun askok azalpen batzuk eskertuko dituztela, hedabideek, politikariek eta guk geuk, batzuetan, ez baitugu gehiegi laguntzen.

Artikulu honen helburua da oinarrizko gaiak argitzea, ahal bada adibideen bidez, denok argi izateko zeri buruz ari garen une bakoitzean. Nire ustez gaiak argi badaude (ados egotea beste kontu bat da), ez dut askorik esango, esaterako, eroldaren epeei buruz, edo gaizki egindako ordainketei buruzko alderdiez; era berean, interesdun gehienak ados badaude —errefuxiatuei buruzko atalak, kasu— ez dut tutik esango. Eta, lehen esan dudan moduan, ez naiz sartuko analisi eta inkesta sakonetan ez baita beharrezkoa kontzeptuak ulertzeko. Hala eta guztiz ere, askotan balorazioak ezinbestekoak izango dira, eta horiek zilborrak bezalakoak dira, bakoitzak berea du, pertsonala (baina, transferitzeko prest).

Horretarako, batzuetan kontrako usteak eta iritziak erabiliko ditut oinarri gisa, gai gehiegi batera gogoan izatea oso zaila izan arren. Nire ustez, hausnarketarako, bakoitzak pentsatzen duenak ez dauka garrantzirik, politikari edo interesdun profesionalen arteko eztabaida denean izan ezik, behintzat. Dena den, egunaren korapiloen arabera, ni neu gauza naiz ia edozer gauza edo kontrakoa sinesteko; espia bikoitza izateko oso abilezia aproposa... Bauman (2009) jaunak esaten zuen moduan, “mortalasunez bizi denak ezin du antibalentziarik gaudituz, berarekin bizitzen ikasi behar du”.

3. Sistemaren gaineko ikuskera bitxia

Ustezko epeltasun horretan sakontzeko, eta Apokalipsiaren zigorra² jaso baino lehen, gogoan izan behar da gure eztabaidetan sarri ahazten dela Sistemaren izaera: “subsidiarioa izango da, edo, hala badagokio, osagarria” (147/2010 Dekretua: 3. artikulua, 2. atala). Zenbatekoei buruzko eztabaidetan beti aldarrikatzen da igoeren beharra,

² “Nik zure ekintzak ezagutzen ditut, ez baitzara ez hotz ez bero. Nahiago nuke hotz edo bero izan zaitezela! Baina epela zarenez, eta ez hotz ez bero, nire ahotik oka egingo zaitut” (Ap. 3: 15-16).

daukagun kopuruak ez direlako nahikoak familiak duintasunez bizitzeko, ezta hurrik eman ere. Esate baterako, maiatzean Gasteizko Legebiltzarretan izandako aurkezpenean, berriz aipatu zen kopuru horiekin ezinezkoa zela familia batek dituen gastu guztiei aurre egitea.

Hurrengo atalean datu eta adibide batzuk erabiliko ditut, eta argi geratuko da, berriro ere, horrekin ezinezkoa dela den-dena ordaintzea. Ebidentzia hiru aldiz errepikatu ondoren, badator galderarik zailena: Sistema honek bermatu behar al du familia guztiek diru nahikoa izatea nahitaezko gastu guztiei aurre egiteko? Tentuz ibili behar dugu erantzunekin (batez ere arinegi botatzen baditugu), bai bihotzez Sistemaren aldekoak bagara, bai guztiz kontrakoak bagara, oso erraza baita alde batekoek beste aldekoek aurpegiratzea, ia-ia lehen esaldia bukatu baino lehen, demagogoarena egiten ari direla edo ziniko itzelak direla.

Kritikari zorrotza izan arren, Sistemaren beharra argi daukat, eta uste dut berrikuste-prozesu honek garrantzi handia daukala, beste gauza batzuen artean, ozenegi hitz egin delako Sistemaren kontra. Kontrakoek, batzuetan, mahai gainean jarri dituzte benetako arazoak, baina, askotan, interpretazio interesatuak egin dituzte. Zoritxarrez, aldekoek ere, noizean behin, antzeko zerbait egin dute, kontraerasoan edo auskalo zergatik.

Enkarnazio honetan ez dut espero kontrakoek estilokoek benetako aurreiritzirik gabeko eta huteskunderen girotik kanpoko hausnarketa egitea. Aldekoen taldean, aldiz, zuhurtasun handiagora eskertuko nuke. Pobreziaren eta bazterkeriaren aurkakoen zintzotasuna esan gabe doala ematen du (iraultzaren kutsu erromantikoa edo); joaten ez bada, berriz, arerioari laguntzen ari garelakoan nago.

Susan Georgek (2004) zioen moduan: “arerioak beldurtu nahi gaituenean bere goi-mailako jakintzarekin, oso garrantzitsua da gogoratzea gure interpretazioa —datu jakin batzuen edo egoera batena— berea bezain ona dela”. Eta, aldekoen interpretazioa benetan hobe izateko, nire ustez, ikuspuntu kritikotik eginda ere, aurreko 28 urteetan egindako lana errespetatu behar du, argi-ilun guztiak barne. Ondo egin diren gauzak, eta lana zuzen egin duten pertsonak errespetatzen ez badira, gure helburu bakarra delako gaizki egin dena eta erabaki txarrak hartu zituzten pertsonak kritikatzeko, arerioa irabazten ari da, bere lanaren erdia eginda baitauka.

Horrek ez du esan nahi, inondik inora, alboan utzi behar dugunik ikuspuntu kritikoa eta zorrotza egindako proposamenak zalantzan jartzeko eta, esan gabe doa, bakoitzak bere interpretazioaren arabera proposamen praktikoak aurkezteko. Tamalez, aurreko esaldiaren lehen zatia betetzea oso erraza da; datuak eta egoerak interpretatzea, aurreko aipuak iradokitzen zuen moduan, beste kontu bat da. Lan zaila izateaz gain, arazoak konpontzeko hausnartzeak dakar zalantzan jartzea pentsamolde propioak, iritziak eta,

noizbehinka, printzipioak, eta pertsona guztiak ez dira hain nahaste sakonen aldekoak.

Azkenik, uste dut argi izan behar dugula Sistemak ezin duela miraririk egin, eta askotan ematen du eskatzen diogula gizartearen arazo guztiak konpontzea, esaterako, aldarrikatzen dugunean DBEren zenbatekoak nahikoa izan behar duela duintasunez bizitzeko. Duintasun hori lortzeko, seguru asko, aldez aurretik beste gai batzuk konpondu beharko genituzke. Hona hemen behin-behineko zerrendatxo amaigabe, interesdunen erabilerarako:

- Pentsio txikiak.
- Lanbideen arteko gutxieneko soldata txikia.
- Nomina txikiak.
- Langabezia.
- Lan prekarioak.
- Hitzarmen kolektibo injustuak.
- Etxebizitzaren prezioa.
- Desjabetzeak.
- Babes ofizialeko etxebizitzaren eskaintza eskasa.
- Gasaren eta argindarraren prezioak.
- Enpresa energetikoei egindako mesedeak prezioak zeruan izateko.
- Bankuei oparitutako dirutza.

Gure Sistema famatuak lortu behar badu nahaste horrek eragindako kalteak konpontzea, orduan bai, jai daukagu. Une honetan benetan bermatu behar duguna da babes-sistema honek etorkizuna izatea, konponketak eta moldaketak egin ondoren, laguntza behar duten ahalik eta pertsona gehienei laguntzeko. Unibertsala ez denez, ez dut pertsona guztiak esaten, argi baitaukat berrikuste honetan hori ez dugula lortuko, Legebiltzarrean bide horretan ez dagoelako gehiengo nahikorik. Hasierako *Retrotopía*-ren egilea oker ez badabil, auskalo zer pentsatzen duen gizarteak berak...:

‘Bestea’ (edozein beste) mehatxua den gizarte batean, bai denon agerian, mozorroa kenduta edo oraindik agertu gabekoa (eta, arrazoi horregatik beragatik, izugarriagoa eta ikaragarriagoa), elkartasuna (eta, bereziki, konprometitutako elkartasuna, itundutakoa eta hitzemandakoa bada), inozoa, sinesgogorra, burugabea eta txolina tranpa saltzailea delakoan daude (Bauman, 2017).

4. Gai ekonomikoak

Aurkibidean ikusi duzuen moduan, gai ekonomikoekin jarraituko dut. Jakin badakit matematika-zale ugari ez dagoela, baina gure hausnarketan zenbakiak ezinbestekoak dira proposamenen ondorio batzuk ahalik eta argien ikusteko.

4.1. Bizikidetzaren unitateak eta oinarriko zenbatekoak zehazteko erabiltzen diren formulak aldatzea

Gizarte Zerbitzuen eta Lanbideren arlotik at daudenez ez daukate batere argi zer esan nahi duen ‘bizikidetzaren unitate’ kontzeptu horrek Sistemaren araudian. Askoz jota, ulertzen da pertsona bakoitza onuraduna izan beharrean familia osoa izango dela. Hala ere, bizikidetzaren unitateen (hemendik aurrera BU) muga berriari buruz zeharkako aipamen ugari aurkitu ditugu; batez ere, hedabideetan eta hainbat forotan zabaldu da proposamenaren asmo bakarra murrizketa dela.

Susmo eta asmoen arteko zirrikituetan sudurra sartu baino lehen, adibide batzuk azalduko ditut —ahalik eta errazena— eungo egoera eta proposamenaren arteko aldeak ikusteko eta indarrean dagoen araudiak sortzen duen desoreka azaltzeko; beste kontu bat da nondik joan gaitzkeen desoreka orekatzeko: goitik, behetik edo zeharkako bidetik.

Demagun bi etxebizitza daudela elkarren ondoan eta pertsona guztiak diru-sarrerarik gabe daudela:

A. Bi pertsona bizi dira, ez dute inolako ahaidetasun-harremanik eta baldintzak betetzen dituztenak bi BU direla ulertzeko.

B. Lau kide: bikote bat eta bi ume.

Gaur egun, A kasuan bi DBE jasoko lituzkete, bakoitzak berea, BU kide bakarrekoei dagokiena³: $634,97 \times 2 = 1.269,94$ euro. B kasuan, aldiz, DBE bakarra dagokie, hain zuzen ere, hiru kideko edo gehiagoko BUei dagokiena: 901,94 euro.

Proposamenaren kalkuluak egin ondoren, honako egoera honetan egongo ginateke. A kasuan, bi aukera dauzkagu:

- Araudiak ezarriko duen epea bete arte, lehen bezala, bi unitate daudela ulertuko genuke: lehenak 650 euroko prestazioa izango luke eta bigarren mailakoak 300 euro gehiago; guztira 950 euro.
- Epe hori igarota (12/24 hilabete luzatzeko aukerarekin egoera benetan zaila bada) bien artean 750 eurokoa.

B familiak 1.034 euroko DBEa.

Egia esan, gai honen inguruan gris askorik ez dago. Batzuek argi daukate proposamena murrizketa hutsa dela. Hala eta guztiz ere, adibideen arabera, sortuko dira murrizketak kide bakarreko unitateetan batez ere. Kide gehiago baldin badaude, emaitza handiago edo oso antzekoa izango da bigarren mailako unitatea onartu arte. Hortaz, oso hausnarketa sakona derrigorrezkoa izango da proposamenak aipatzen duen muga araudi berrian ezartzeko. Zehatz-mehatz,

³ Kopuru guztietan kontuan izango ditut 2017ko kopuruak, Aurrekontu Legeak ezarritako %7ko kenketa barne.

zer esan nahi du “ordezko beste bizikidetz-formularik” sortzeak? (3.2.1. bukaeran). Bide batez, noraino onartuko da egoera berezi horiek luzatzea?

Hortik aurrera, beste mota batzuetako proposamenak egin nahi izanez gero, munduan dauden gainontzeko iritziak ere entzun beharko ditugu, eta gai honen inguruan honako hauek dira zuria eta beltza (edo alderantziz, irakurlearen bizitzaren ikuspuntuaren arabera):

1.200 euro askoz jota etxe batean oso diru gutxi da, murrizketa onartezina!

Nola da posible hainbeste diru sartzea etxe batean lanik egin gabe? Non sinatu behar dut?

Biak batera utzita, kontraesana begi-bistakoa da. Gure arloan eskubidearen aldarrikapena oso barneratuta dago. Prestazioak ezagutzen ez dituztenek, gure arloko iraultzaile sutsuena baino sutsuagoak izan arren, batzuetan, ez dute ulertzen hainbeste zarata muga hori ezartzeko asmoa dagoelako, batez ere lan handia egin behar bada kopuru horiek lantokian lortzeko; gainera, haien ustez ez da proportzio berean aldarrikatzen langile guztien egoera.

4.2. Enplegurako pizgarrien sistema hobetzea

Hasi baino lehen esan behar dut nire ustez lanean hasteko pizgarrien aplikazioa murriztearena izan zela 147/2010 Dekretuak ezarritako neurririk txarrena, batez ere, ikuspuntu filosofikotik. Dena den, orduan bete zen 18/2008 Legearen 20. artikulua ezarritakoa: “Lanerako bultzagarria sendoagoa izan dadin, eskatzailearen edo haren bizikidetz-unitateko beste kide batzuen norberaren konturako edo besteren konturako diru-sarreraren portzentaje jakin batzuk ez dira zenbatuko. Lanerako bultzagarri hori aldi baterakoa izango da, erregelamendu bidez zehaztuko den moduan, salbu enplegu-zerbitzuek luzatzea gomendatzen badute berariazko irizpen baten bidez”. Beraz, muga erabaki zutenak aurrekoek asmatutakoa betetzen ari ziren.

Orain, beste gai batzuekin gertatuko den moduan, erabateko adostasuna izango dugu pizgarriak sendotzeko. Baina gure munduan adostasunak —gehienetan— ustezkoak edo itxurazkoak direnez, bueltatxo bat emango diot nire gai faboritoari: zertarako ezarri ziren gure Sistemak? Proposamenak dioten moduan “lanpostu batean diharduten guztiek lor dezaten prestazioa jaso eta lanik egiten berean ez dutenenak baino guztizko diru-sarrera handiagoak —horien familia— edo bizikidetz-egoera egonik, horrela, laneratzea sustatzeko”. Hau da, helburua da lana egiten duenak egiten ez duenak baino diru gehiago izatea.

Helburu hori lortzeko formula matematiko bat erabiltzen da, 2001eko otsailaren 14ko Aginduan ezarrita dagoena. Emaitzak ezarriko du lan-etekin

proportzio bat egoera ekonomikoan kontuan izango ez dena; hots, ez dio aplikatuko diru-kopuru bereziren bat. Ñabardura burutsua izan daiteke, baina adibideen bidez argituko dugulakoan nago. Letra-zaleek ez dute ihesik egin behar: aginduaren kalkulua ez dut azalduko, Aginduak berak egiten baitu.

Demagun bakarrik bizi den pertsona batek hilero 800 euro irabazten dituela, kenketa eta hainbanatze proportzional guztiak egin ondoren, adibidea errazteko. Aginduak ezarritako kalkulua eginda, emaitzak esango digu DBEren kalkulurako ez dugula kontuan izango jasotakoaren %44, hots, 353,10 euro. Beraz, benetako diru-sarrera 446,90 eurokoa izango balitz bezala kalkulatu dugu DBEa eta, ondorioz, pertsona horri teoriar dagokio 235,86 euroko DBEa. Aurrekontu Legearen arabera, azken kalkulua egingo dugu, eta emaitzari %7ko kenketa egingo diogu. Ondorioz, benetan jasoko duena 219,35 euroko DBEa izango da. Beraz, pertsona horrek hilero jasoko du irabazitakoa gehi DBEko emandako emaitza: $800 + 219,35 = 1.019,35$ €. Inolako diru-sarrerarik gabeko pertsona bakar bati 634,97 eurotako DBEa dagokio.

Indarrean dagoen araudiaren arabera, pertsona horiek alokairuan bizi badira, eta, horrez gain eskubidea dute ELOa jasotzeko. Beraz, azken egoera honako hau izango litzateke:

- Lana egiten zuenak, guztira, hau jasoko luke $1.019,35 + 232,50 = 1.251,85$ €.
- Eta langabeziaren dagoenak, hau: $634,97 + 232,50 = 867,47$ €.

Zer gertatzen da pizgarrien aplikazioa murrizten bada, 2013tik aurrera⁴ gertatzen den moduan? Lana egiten duenak, une batetik aurrera, DBEa jasotzeko eskubidea galduko du eta, ondorioz, baita ELOa izateko ere (GLLa izateko eskubidea ez luke galduko, baina laguntza hori aurrekontuen mende dagoenez, ez da beti gehieneko kopurua). Lana egiten ez duenak, aldiz, ez du inolako aldaketarik izango. Zenbakietan esanda, lana egiten duenak hilero 800 euro izango ditu eta lana egiten ez duenak 867,47. Laneratzea sustatzeko modukoa kontua, bene-benetan.

Proiektuaren bigarren asmoa da deskontu horri muga bat ezartzea: kontuan izango ez dugun kopuru horrek ezin du gainditu kopuru zehatz bat —400 euro— hain zuzen ere. Deskontuaren muga hori gainditzea oso zaila da, oinarritzko kalkulua bere horretan uzten bada. Formularen arabera, pertsona horrek 1.269 jaso beharko litzuke kenketa 400 eurokoa izateko; eta, maila horretan, ez luke eskubiderik izango DBEa jasotzeko. Edonola ere, formula doitu arren, benetan garrantzia duena da lanean hasteko pizgarriaren aplikazioa mantentzeak, esandako egoerak ez errepikatzeko.

⁴ 147/2010 Dekretua 2010ean indarrean sartu zen, eta bi urteko muga ezarri zuen, urtebeteko luzapena onartzeko aukerarekin. Horrela, ondorioak agerikoak izan ziren 2013tik aurrera.

Aurrekontu-zaintzaile amorratuak lasai uzteko, esan beharra dago nire ustez gastua beti txikiagoa izango dela pizgarri mugagabeak badauzkagu. Zurrumurruen arabera pertsona askoren asmoa musu-truk bizitzea izan arren, pertsona gehienek nahia lana egitea da, beste hainbat arrazoiengatik, erabat desberdina delako administrazioaren laguntza lortzea sasoi latza pasa arte, betirako administrazioaren mende egotea baino. Gehienek helburua da, gainera, gutxienezko ongizatea lortzea, ez oinarrizko beharrak betetzea, besterik gabe.

Nahiz eta azken hilabeteetan langabezia daudenen kopurua jaitsi, lanpostu gehiegi behin behinekoak dira, eta soldata txikiak. Horren ondorioz, aurrekusi behar dugu geroz eta langile gehiegok beteko dituztela DBEaren baldintzak. Beti ez dira Sistemaren egongo, baina sarrera eta irteera asko izango direlakoan gaude. Hala eta guztiz ere, egoera horrek ez dakar aurrekontu igoera zuzenik. Administrazioarentzako beti izango da merkeago DBE txikiaren bat ordaintzea —pizgarrien aplikazioari esker lortzen dena— prestazioa osorik ordaintzea baino. Gainera, lan-munduan dagoen aukera gehiago izango du lanpostu hoberen bat lortzeko eta, ondorioz, egunen batean Sistemaren beharrik ez izateko.

Proiektu berriak gainditu egin behar ditu denon irakurketak eta hausnarketak: igoera etengabea eta iraunkorraren aldekoenak eta gastua eutsi behar (edo "nahi", zuen pentsamoldearen arabera) dutenenak. Berrito ere oreka bilatu behar da: etengabeko igoeraren aldekoen ikuspuntuak erabateko arrakasta izango balu, ez dakit nondik aterako genukeen dirua; gastu-kontrolatzaileenak irabaziko balu, aldiz, ez dakit zer egingo genukeen kale gorriari geratuko litzatekeen jendearekin. Muturretara nahita joan naiz, eztabaidetan geure burua muturretan kantonatzeko joera daukagulako, setio luzea antolatzeke prest. Horrelakorik ez dugu behar, orekariak nahiago.

Testuinguru horretan, eta atal honekin bukatzeko, zerbait esan behar da Sistema honek behin-behineko kontratu txarrak bultzatzen dituelako pentsamoldeari buruz. Kontratu mota horiek toki guztietan zabaldu dira, prestazioak oso txikiak —edo inolakoak— izan arren. Beharbada pertsona eta erakunde jakin batzuek aprobetxatu dute prestazioen Sistema beren onerako; hala ere, joera horrek, nire ustez, ez dauka zuzeneko lotura esandako Sistemarekin, eta berariazko irtenbide politikoak beharko litzuke.

4.3. Ondarearen balorazioari dagozkion aldaketak

Nahi ez genuen ia guztia lortu dugu.
Eta gehiago dena, nahi genuen ia ezer
ez dugu iadanik nahi.
SARRIONANDIA (1997)

Hitzen ondoeza izeneko liburuan oso une zehatzean kokatu arren, pentsamendu hori ondarearen balorazioaren testuinguruan erabiltzen badugu, bete-betean asmatuko dugulakoan nago. Ez daukat batere

argi nola eta zergatik asmatu/proposatu/onartu zen 147/2010 Dekretuaren 24. artikulua lehen atala:

Diru-sarrerak bermatzeko errenta lortzeko, titularrak edo bizikidetzaren unitateko beste edozein kidek ez du jabetzan izango inolako ondasun higiezinik, 9. artikulua 3. paragrafo b) idatz-zatia aurreikusitako salbuespenekin [ohiko etxebizitza, garajea eta ganbara barne].

Suposatzen dut zein ziren helburu nagusiak, baina ez naiz gauza ulertzeko zergatik geratu zen inolako muga ekonomikorik gabe, kontuan izanda indarrean zegoen —eta dagoen— araudiak argi jasota daukala ondarearen muga (lau aldiz BUari dagokion DBEa, inolako diru-sarrerarik gabe baldin badaude).

Horren ondorioz, eta azken urteotan neure burua nazkatu arte errepikatu dudana moduan, 147/2010 Dekretuak era berean ulertzen zuen kostaldeko bigarren etxebizitza elegantzeren bat edo baratzako txabolarik ziztrinena. Eta, ondorio horren ondorioz, herritar gehiegi (ez dakit zenbat, baina pare bat izanda ere gehiegi izango litzateke) geratu dira inolako diru-laguntzarik gabe.

Egoera hori kontuan izanda, proiektuak honako proposamen hauek jaso ditu:

- Higiezinaren balioa eta kitatzeko ahalmena bereiztea, Sistemaren behar objektiboa duten pertsona guztiek DBEa jasotzeko aukera izan dezaten.
- Prestazioa partzialki murrizteko sistema bat ezartzea, dagozkion ondasunen katastro-balioarekin lotutakoa, katastro-balio horren ehuneko bat BUaren errentatzat hartuta eta, hortaz, proportzio horretan murriztuta hasiera batean jasotzeko eskubidea dagoen prestazioaren zenbatekoa.
- Kasu jakin batzuetan, sistema horrek bidea emango du, edonola ere, prestazioa murrizteko kontuan hartzen den balioa zero izateko eta, horrenbestez, kasu horietan prestazioaren zenbatekoka ez murrizteko.

Zorionez, ematen du mundu guztia bat datorrela gai honen inguruan: Lanbide, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak, Hirugarren Sektorea, Legebiltzarkideak... Denok daukagu argi atal hori zuzendu egin behar dela; nire zalantza nagusia da nola asmatuko dugun "kitatzeko ahalmen" horren baldintzak ezartzeko. Balio katastrala oso txikia bada, eta tokia ezagutzen badugu, oro har, proposatutako neurriak nahikoak izango dira kasuak bereizteko. Nolanahi ere, tentuz ibili behar gara, ezohiko egoerak alde aurretik kontuan izateko. Adibideak, gutxienez, baliogarriak izango dira arazo motak mahai gainean jartzeko:

- Ondasun higiezin bat salgai daukate aspaldi. Prezioa asko jaitea omen da saltzeko bide bakarra, baina familiak ez du hainbeste baliorik galdu nahi. Noraino jaistera behartuko ditugu?

- Ondasun bera EAetik kanpo dago eta, kokapena ezezaguna denez, ez daukagu argi noraino den zaila kitapena lortzea.
- Etxebizitza bat jabetzan dute EAetik kanpo eta hemen alokairuan bizi dira.
- Etxebizitza jabetzan dute, baina ahaideren bat etxe horretan bizi da.

Proiektuak bere horretan uzten badu indarrean dagoen ondarearen gehieneko muga, adibide horiek ez dute arazo handirik izango ondarea etxebizitza ez bada, edo, etxebizitza izanda ere, oso zaharra edo balio gutxiak bada. Muga gainditzen bada, aldiz, erabaki egin beharko da egoera horietan DBEaren onuraduna izatea egokia den.

Bestalde, egoera horiek uste baino garrantzi handiagoa daukate kontuan izanda Legebiltzarrak joan den legealdian agindu zuela GLLen Dekretua aldatzea, beste gauza batzuen artean, horrelako kasuei aurre egiteko. Eusko Legebiltzarreko Osoko Bilkuraren legez besteko 23/2015 Proposamenak, zehatz-mehatz, hau dio:

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio, kontuan hartuta Jaurlaritzak berak eta gizarte-erakundeek eginiko txostenak, zeinean agerian uzten baitira pobrezia eta gizarte-bazterketa eragiten duten estaldurarik gabeko errealitate eta behar berriak, behar diren urratsak egin ditzala 2015eko urte honetan 4/2001 Dekretua aldatzeko, gizarte-larrialdietarako laguntzak eskuratzea izan dezaten likidezirik ez daukaten pertsonen gizarte-bazterketako egoerak, eta estaldurarik gabeko pobrezia-egoera berriak, aurreikusten edo arintzen dituzten berariazko gastuei erantzuteko.

Ezinezkoa zen eskabide hori betetzea GLLen araudia aldatzen. Arrazoi nagusia da diru-sarrerak eta ondarearen baloraziorako GLLen Dekretuak DBEarena bideratzen gaituela eta, ondorioz, derrigorrezkoa zen, gutxienez, DBEaren Dekretua aldatzea. Hala eta guztiz ere, dekretuen aldatetak ez du miraririk egingo gainean dagoen Legea aldatu gabe, une honetan proposatzen ari den moduan.

Proposamenak egiten badira egoera berezi horiek kontuan izateko —adibideetan jasotakoak edo bakoitzak ezagutzen dituenak—, oreka bilatzea oso delikatua izango da: alde batetik, gure helburuak ez du izan behar familiak ondare osoa galtzea Sistemaren onuradun izateko; bestalde, onartu egin behar dugu ezinezkoa dela ondare guztia gordetzea —familien egoera ekonomikoa larria bada, nahikoa bada eroso aurre egiteko oinarritzko beharrei, edo oso balio handikoa bada—, batzuetan proposatzen den moduan.

4.4. Prozedurak DBEaren kopuruak ezartzeko

Lehenago edo geroago, hautematen dugu arauak betetzeak, zehatz-mehatz eginda ere, ez gaituela erantzukizunetik salbatzen. Azken finean, bakoitzak erabaki behar du, gatazkan dauden arauen artean, zeintzuk bete eta zeintzuk baztertu.

HUXLEY (2009)

Aspaldi erabaki zen lanbideen arteko gutxieneko soldata (LGS) erabiltzea DBEaren kopuruak ezartzeko oinarri gisa. 18/2008 Legearen 20. artikulua 1. Taulako zenbateko hauek finkatu zituen bizikidetzako unitateen ezaugarrien arabera (LGSaren ehunekoak):

1. Taula. Lanbide arteko gutxiengo soldataren ehunekoak DBEaren kopuruak ezartzeko

Orokorrak			Pentsiodunak		
1 kide	2 kide	3 edo +	1 kide	2 kide	3 edo +
% 88	% 113	% 25	% 100	% 125	% 135

Iturria: 18/2008 Legearen 20. artikuluekin abiatuta, egileak egina.

Araudia indarrean dagoenetik⁵, LGSaren bilakaera oso horizontala izan da, urte batzuetan izoztu egin baita edo igoera oso txikiak izan dituelako. Argi dago egoera hori oso txarra dela langileentzako eta, gure testuinguruan, baita diru-laguntzen onuradunentzako ere. Bestalde, ez die infaturik eragin Erkidegoko aurrekontuen arduradunei, orain arte igoeren erritmo motela jarraitzea onargarria izan baita.

Aurten, berriz, Espainiako Legebiltzarrak % 8ko igoera onartu zuen. Kontuan izanda estatuko LGSa oso txikia dela, arrakasta itzelaren aurrean geunden. Hala ere, Erkidegoko aurrekontuei dagokienez, sustoa ere itzela izan zen. Estatuan, aldiz, gizarte-laguntzen zerbitzuetan ez zegoen horrelakorik, oro har, IPREM⁶ izeneko indizea erabiltzen dutelako erreferentzia gisa prestazioak kalkulatzeko; ondorioz, igoerak ez zeukan zuzeneko loturarik arlo horretako aurrekontuekin.

Zalantza, hausnarketa eta eztabaiden ondorioz, denok dakigunez, Eusko Jaurlaritzak erabaki zuen kontsumoko prezioen indizearen igoera erabiltzea DBEaren zenbatekoa kalkulatzeko. Horrela, 2/2017 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko 2017. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituenak, erabaki hori 7. Xedapen Gehigarrian ezarri zuen:

2017ko ekitaldian, diru-sarrerak bermatzeko errentaren zenbatekoa, edozein modalitatetan, eta orobat guraso bakarrek bizikidetzako unitateentzako hileko subsidio osagarriarena, 2016ko ekitaldian aplikatutakoa izango da % 1,5eko portzentajearen gehituta.

⁵ Aurreko urteetan gogoan hartzeko igoerak izan zuen eta, ondorioz, prestazioak proportzio berean igo ziren. Hala eta guztiz ere, testuinguru ekonomiko orokorra egungo baino guztiz bestelakoa zen.

⁶ *Indicador público de renta de efectos múltiples*, IPREM indizea: 2010etik hona 532,51 eurokoa izan da.

Atal honen hasieran erabili dudana Aldous Huxleyren liburu berean askotan esaten da “adi! Orain eta hemen!”, uharre horretan garrantzi handia ematen diotelako une bakoitzean egiten ari garenari. Gure egunerokotasunean, aldiz, gehienetan ari gara iragana gogoratzen eta interpretatzen (zerbait konpondu nahian) edo etorkizuna imajinatzen eta antolatzen.

Orain eta hemen ez dauka zentzu handirik buelta gehiegi ematea Eusko Jaurlaritzak egin zuenaren zergatiari⁷, baina bueltatxoren bat behar beharrezkoa delakoan nago. Balantzan jarrita, alde batekoek uste dute Legez kontrako gaiztakeri barkaezina izan zela; beste muturrean erabakia defendatzen dutenek —hainbat ikuspuntu praktikotatik— daude. Oreka bila bizi naizenez, gai honetan ere hankak dardarka ditut: argudio guztiak ulertu arren, nahiz eta kritiko gehienekin teorikoki bat etorri, uste dut ezinezkoa zela bat-batean igoera horri aurre egitea txikizio ederra antolatu gabe Sailaren gainontzeko zerbitzuetan, hobe esanda, saila zerbitzu gutzietan.

Legea berrikusteko testuingurua aukera ezin hobea da proposamenak egiteko: zenbatekoen mugak, prozedurak kalkulatzeko, indize egokiak... Tentuz ibili, ordea, mahaia gainean jartzen dugunarekin, batez ere, ezusteko ondorioek alde gutzietatik agertzeko joera baitute.

Zenbatekoei dagokienez, errepikatzen ari garen moduan, aldarrikapen nagusia igoera da. Demagun gure balantzaren lehen aldekoek irabazten dituztela hurrengo hauteskundeak eta erabakitzen dutela % 20ko igoera ezartzea. Gastuari aurre egiteko, erabakitzen dute zergak ere igotzea, proportzio egokian gehiago daukatenean orain baino askoz gehiago ordain dezaten. Hala ere, Estatuaren mende egonda, gutxienean soldata ezin dute neurri berean igo; horregatik, ezartzen dute EAE-gutxienean soldata, gure Erkidegoko enpresek langileei behar den moduan ordain diezaieten.

Uharre berezi batean egon arren, hauteskundeak berriro antolatzen dira eta —hau bai ezustekoa!—, Sistemaren kontrakoek irabazten dute, zergak jaitsiko dituztela aldarrikatuz. Edo aldekoek irabazten dute, baina pentsatzen dute guraizeak sartu behar dituztela, 2012tik hona egiten ari den moduan, Aurrekontu Legearen bidez⁸.

⁷ Kontuan izan behar dugu, gainera, 742/2016, Errege-Dekretuaren —2017ko LGSa ezartzen duena— 2. Xedapen Iragankorra. Erkidego Autonomoek igora ez aplikatzea errazten du, erabaki hori juridikoki babestuz. Dena den, zalantzarik da babes hori baliozkoa den gure kasuan.

⁸ 2/2017 Legea: 6. xedapen gehigarria:

1. Sektore publikoko entitateek, izaera orokorreko xedapenetan jasotako erregulazioaren babesean, 2017ko ekitaldian ematen, errekonozitzen edo ordaintzen dituzten laguntza, diru-laguntza eta prestazio ekonomikoek, alde aurreko deialdi publikorik eta, gastu-muga ezartze aldera, gastuaren finantzaketari lotutako aurrekontu-baliabideen aurretiazko publizitatek egin behar ez dutenek, %7ko murrizketa izango dute haien zenbatekoan, lege honetan ezarritako laguntzak, diru-laguntzak eta prestazio ekonomikoak salbu.

Batzuen ustez behar beharrezkoa da bermatzea prozedura bat, ezinezkoa izan dadin aldaketak alderdi politiko baten nahien —edo Legebiltzarreko gehiengoren baten— gustura egitea. Nire ustez hori ezinezkoa da, Legeak, onartzen diren moduan, bertan behera uzten baitira; adibideak nonahi ditugu eskura. Alde nagusia dator Legebiltzarrean dauden proportzioetatik: gehiengo osoa duenak nahi duena egingo du (beste erakunderen batean ez badauka beste motatako beharrik), eta akordioak behar dituenak, akordioak bilatuko ditu, nahiz eta laguntxo susmagarrien artean bilatu behar.

Azken bi alderdiak kontuan izanik, ez daukat batere argi zer onura dakarren datu finkoren bat erabiltzeak, oso fidagarria izan arren. Adibide bat jartzeko, IPREM berak sortu zenean emandako oinarritzko argudioa erabiliko dut: teoriarik, erraztu egiten du behar handiagoa duten familiek prestazioak lortzea. Ez du esaten, ordea, nola laguntzen duen indizeak berak prestazioen muga ezartzen duenean.

Ondo dago Gobernuak kinka larrian jartzea gai honen inguruan. Hala eta guztiz ere, horri esker lortzen bada norbaiten gustuko indizeren bat ezartzea, arrakasta horrek ez du DBEaren kopurua bermatuko hemendik aurrera.

Ez dakit zein den kopururik egokiena. Gauza naiz ulertzeko nondik datozen aurkeztutako proposamenak eta zergatik egin diren. Kopuru handiagoak proposatzen dituztenek azaltzen badute nondik aterako duten beharko den aurrekontua, azalpenei bueltak emateko prest egongo naiz, nire gaitasun eskasa izan arren. Azalpenen oinarriak baldin badakar oso aldaketa orokorra eta sakona egitea ekonomiaren arloan, nire hurrengo galdera izango litzateke zer egin bitartean, lortuko diren aurrekontuak benetan lortu arte.

5. Euskal Autonomia Erkidegoan benetan bizi izanaren egiaztatze moduak

Araudiaren arabera, nahitaezkoa da erroldatuta egotea eta benetako bizilekua EAEn izatea (18/2008 Legearen 16. artikulua). Ñabardura txikiaren kutsua izan arren, gai honek garrantzi handia dauka kasu jakin batzuetan.

Norbait erroldatuta dagoen egiaztatzea oso erraza da; benetan bizitzearenak, berriz, arazo gehiago dakartza. Alde batetik, araudiak ez du berariazko irizpiderik ematen prozedura ezartzeko; bestalde, zenbait arrazoiengatik, udalek —gehienetan— ez diete jarraipenik egiten erroldatuta daudenei. Hori dela eta, proiektuan hainbat proposamen jaso dira, kontuan izanda pertsonak erroldatuta dauden tokian bizi direla egiaztatze dauden aukera gehienak:

- Errotze-txostenak, udalerriko Oinarritzko Gizarte Zerbitzuen aldetik edo Eusko Jaurlaritzaren eskumeneko zerbitzuaren aldetik

- Lanpostuaren ziurtagiriak
- Lanbiden enplegu-eskatzaille gisa agertzea
- Eskolatze-ziurtagiriak, umeak badaude
- Alokairuaren kontratuak
- Etxebizitzako horniduraren erabileraren frogagiriak

Kasu askotan errolda nahikoa da administrazioaren batek zuzeneko harreman izaten duelako herritarrekin, eta esandako edozein adibideri esker erraz batean egiaztatuko da. Hala ere, beste kasu batzuetan, susmoak sortzen dira, batez ere, Lanbidek bidalitako jakinarazpenak bueltan heltzen badira ezinezkoa izan delako titularra esandako tokian aurkitzea. Jakin badakigu, askotan, horrek esan nahi duela pertsonak etxebizitza batetik bestera joan direla —EAEn bertan, batzuetan herri berean—, erroldarik aldatu gabe, eta Lanbideri ezer esan gabe.

Onuradunen oinarritzako baldintza da administrazioari DBEekin lotura duen edozein aldaketa jakinaraztea; beraz, intentzio txarrik ez izan arren, ez dute araudia errespetatzen eta, are okerrago dena, susmo-kiratsa zabaltzen dute, batez ere hedabideetan jaso gabeko jakinarazpen kopurua fin-fin argitaratzen digutenean. Horrela, iruzurraren zurrumurruak gero eta ozenago entzuten ditugu, eta ohiko ez dena Egia errebelatu bihurtzen da.

Bestalde, susmo guztien atzean ez dago gezurrik, eta iruzur-kasuak daudela ukaezina da, iruzurraren proportzioaren gaineko zalantzak izan arren. Testuinguru horretan, uste baino garrantzi handiagoa dauka erroldatuta daudenek egiaztatzea benetan EAEn bizi direla, eta horretarako beharrezkoa da araudiak bideak zabaltzea; bestela, beti ibiliko gara behin-behineko prozedurak asmatzen.

Proposamena oinarritzat hartuta, oso garrantzitsua da administrazioen arteko harremanak sendotzea, ahalik eta izapide burokratiko gehienak saihesteko. Lanbidek berak informazioa eskura izango du lan-eskatzailleak badaude unitatean, edo lana alde aurretik norbaitek izan badu. Oinarritzako Gizarte Zerbitzuei dagokienez, adibide nagusia GLLen kudeaketa da: lan horri esker, askotan, administrazioak baditu fakturak, alokairuaren kontratuak...; bestalde, harremana izaten dute beste zerbitzuekin, beste batzuen artean, eskolekin eta osasun zerbitzuekin.

Goian esandakoak zuzeneko lotura dauka koordinazio-beharrarekin, baina gai horrek atal propio behar duelakoan nago. Aurrerago baduzue zertxobait, beste gai korapilatsuekin batera.

6. Lotura etxebizitza izateko eskubide subjektiboarekin

Istorioa banekien. Egiarik ez, ordea.
FUENTES (Uribe, 2016an aipaturik)

Carlos Fuentesen esaldia erabili zuen Kirmen Uribek (2016) bere azken eleberria hasteko, eta neuk ere aprobeztatu nahi dut, gai honen inguruan gauza aldakorrak entzun ditudalako.

18/2008 Legearen zioen azalpenak ELOren behin-behinekotasuna ezarri zuen, “epe jakin batean baino ez du jarraituko Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren barruan: harik eta etxebizitzaren arloko politika publikoetan antzeko neurriak edo bestelako batzuk zehazten diren arte, kaltetuenak eta ahulenak diren gizataldeek etxebizitza eskuratzeko modua izan dezaten. Eta une hori hurbildu zen Etxebizitzako 3/2015 Legea onartu zenean.

Aurreko legealdia bukatu zen “Etxebizitza duin eta egoki bat legez okupatzeko eskubide subjektiboari buruzko dekretu-proiektua” burutu gabe. Gaur gaurkoz (2017ko uztailean) dekretu-proiektu berria lantzen ari da. Abiatzeko Agindua eskura dugu Euskadi.eus-en, Gardentasuna⁹ izeneko ataletik sartuta.

Testuinguru honetan gogoratu behar dugu Etxebizitzari buruzko 3/2015 Legeak ezarritako eskubidearen lehen ezaugarria, 9. artikulua argitzen duena:

1. Etxebizitza duin eta egoki bat legez okupatzeko eskubidea bete ahal izango dute horretarako eskumena duten euskal administrazio publikoek, alokairuan eskura jarrita etxebizitza babestu bat edo bizitoki babestu bat, edo baita etxebizitza libre bat ere baldin eta erabilgarri badago bitartekaritza-programaren batengatik edo beste arrazoi batzuegatik, kasu bakoitzean egoki den errenta edo kanonarekin.
2. Etxebizitza edo bizitokirik ezean, eta izaera subsidiarioarekin, eskubidea prestazio ekonomikoen sistema bat ezarrita bete ahal izango da.

Esandako 9. artikulua eskubide subjektiboa izateko bete behar diren baldintza orokorrak ezartzen dituen arren, Legea garatu egin behar da Dekretu baten bidez. Bestalde, gai honen inguruan Eusko Jaurlaritzak legez besteko bi proposamen onartu ditu: 2017ko otsailaren 9an 12/2017 zenbakiduna onartu zuen, eta 2016ko apirilaren 14an, 32/2016 zenbakiduna. Legebiltzarrak bideratutako legez besteko proposamenean kontuan izan dituzte gai batzuk egungo eskubideak ez murrizteko. Esaterako, 2017koak honako eskaera hau egin zuen:

⁹ <http://www.legegunea.euskadi.eus/x59-contfich/eu/contenidos/tramita_decreto/dncg_dec_135117_17_05/eu_def/index.shtml>

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio bermatu dezala ezen etxebizitza duin bat izateko eskubide subjektiboa arautzeko dekretuaren garapenak ez dakarrela inolako murrizketarik orain arte aitortutako eskubideetan, ez baldintzei ez zenbatakoei dagokienez.

Horrela bermatzen dugu orain ELOa jasotzeko eskubidea dutenek ez dutela ezer galduko une batetik aurrera prestazio berria jasotzen badute; ordea, ez du ondo argitzen zer asmo dagoen Dekretua onartzen denetik aurrera prestazio berria eskatzen dutenen eskubideei buruz.

2016ko proposamenak antzeko zerbait jaso zuen. Horrez gain, beste alderdi batzuk kontuan izan arren, nire ustez gai gehiegi utzi dituzte zintzilik, batez ere baldintzei dagokienez. Jakin badakit orain beste proiektu bat lantzen ari direla, eta oraindik proiektu berriak bide luzea aurrean duenez, aukerak egongo direla parte-hartzeko. Dena den, falta diren ñabardurek, beharbada, garrantzi handia izango dute eskubideen maila mantentzeko; horregatik azpimarratuko ditut gai nagusiak.

a. Antzinasuna Etxebizitza Babestuen eta Zuzkidura Bizitokien Eskatzaileen Erregistroan

3/2015 Legearen 4. Xedapen Iragankorrak, beste batzuen artean, lau urteko antzinasuna baldintza gisa ezarri zuen, behin behinean, “harik eta argitaratzen diren arte lege honen 9. artikuluan —etxebizitza duin eta egoki bat lege okupatzeko eskubide subjektiboa betetzeko moduei eta exijitzeko baldintzei buruzkoan— aurreikusita dauden erregelamendu-xedapenak”.

Legez ez besteko 32/2016 proposamenak eskatzen zuen epe hori urtebete jaistea, hiru urtekoa izan zedin: “Legearen 9. artikuluan aurreikusitako erregelamendu bidezko ebazpenak argitaratu arte”. Eskabide hori ikusita, ez daukat batere argi zein den asmoa: behin behineko erabaki bat hartzea Legearen gaineko hausnarketak mahai gainean jarri arte, edo garatu behar den Dekretuak izango duen edukia aurreratzea.

Nolanahi ere, uste dut ez dela kontuan hartu zein den erabaki horren zuzeneko ondorio, bai hiru urteko, bai lau urteko muga izanda ere. Gai honi dagokionez, Sistemaren diru-laguntzen ohiko baldintzak honako bi hauek izan dira:

- Antzinasuna erroldan: hiru urte DBEan eta ELOan, eta 6 hilabete GLLetan.
- Etxebide zerbitzuan alokairuko etxebizitza baten eskatzaile gisa izena emanda edo izena emateko eskaera eginda izatea.

3/2015 Legeak ez du eperik ezartzen erroldari dagokionez. Kanpotik ikusita horrek eskubidea malgutzen du. Esandako erregistroan egoteko

mugak, aldiz, baldintzak gogortzen ditu, Etxebideko erregistroan egoteko berariazko baldintzak betetzea nahitaezkoa baita, eta batzuk Sistemarenak baino gogorragoak dira, batez ere, honako bi gai hauei buruzkoak: bizileku-baimena izatea ezinbestekoa da, eta diru-sarreretan gutxiengo bat eskatzen da (hurrengo atalean aipatuko da).

Bestalde, beste ñabardura bat argitu behar da: aurreko proiektuaren arabera, 4 urteko epea kalkulatzen zen azken izen-ematearen arabera; hortaz, pertsona batek erregistroan sartu-irten batzuk izan baditu, kontuan izango litzateke azkeneko sartzearena. Horren ondorioz, teoriarik ezarritako epea —hiru edo lau urtekoa— muga finkorik gabe luza daiteke.

Bestalde, pertsona batzuek ez dute inoiz erregistroko eskabiderik egin. Bakoitzak bere zioa izango du: batzuen ustez, ez du zentzurik izango, eskaintza eskasa delakoan baitaude; beste batzuen kasuan, ez dutelako behin-behineko lanik baino ezagutzen; eta beste batzuek ez dakitelako zer-nolako eragina izan dezakeen izapide hori betetzeak beste gauza batzuk lortzeko. Denetarik egon daiteke.

Kontuan izanda Sistemaren baldintza orokorra zela erregistro horretan izena emanda izatea, aldea oso nabarmena da. Horregatik da hain garrantzitsua argitzea zer lortu nahi duten legebiltzarkideek lege ez besteko proposamenak eskatzen dituztenean: Dekretu berriak ez ezartzea orain arte aitortutako eskubideak murriztuta —ez baldintzei ez zenbatakoei dagokienez—, egungo onuradunen eskubideak bermatzeko, edo etorkizunean laguntzen beharra izango dituztenen eskubideak ere bermatzea.

b. Baldintza ekonomikoak

2016ko Legez ez besteko proposamenaren 5. atalak hau eskatu zion Eusko Jaurlaritzari:

Ezen, etxebizitza duin bat izateko eskubide subjektiboaren onuradun posibleei eska dakizkiekeen errentari buruzko betekizunak ez daitezela inoiz ere handiagoak izan Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko Legean DSBEa lortzeko adierazitakoak baino.

DBEaren Sistemak, egoera ekonomikoari dagokionez, ez du gutxiengorik, onartzen baitu herritarrek ez izatea inolako diru-sarrerarik. Etxebideko erregistroan izena emateko, aldiz, gutxiengo muga 3.000 eurokoa da, kontuan izanik azken zerga-urtearen egoera. Oso txikia izan arren, oztopo izan daiteke, batez ere, aurreko atalean esandako muga luzatuko duelako.

Gainera, herritar guztiengan izango du eragina, batez ere, behin-behineko lana dutenen artean eta, are gehiago, soldata txikiak dituztenen

artean. Beharbada lortuko dute erregistroan egotea, baina lana galtzen dutenean, Etxebideko berrikusketek kanpoan utziko dituzte eta, horren ondorioz, esandako epearen kalkulua zerotik hasiko da berriro.

c. Etorकिनen egoera

Aldirako bizileku-baimena nahikoa da erregistroan egoteko. Hala eta guztiz, DBEren Sistemak etorkinen eskabideak onartzen dituenek horrelako baimenik izan gabe, egoera horretan daudenek ez lukete eskubiderik izango erregistroan egoteko eta, ondorioz, azkenean ezarriko den epea muga finkorik gabe luzatuko litzateke.

Berriro ere, ñabardurak oso garrantzitsuak dira. Etxebizitzarako eskubide subjektiboaren Dekretuak gaur egun ELOa jasoko luketen pertsonak eskubiderik gabe uzten baditu, GLLak izango dira pertsona horien aukera bakarra alokairurako prestazioak jasotzeko, eta, ondorioz, garrantzitsuagoak izango dira kontuan izanda araudiak ezarritako izaera: “subsidiarioak dira eta, hala badagokio, indarreko legerian aurreikusten diren ... eduki ekonomikoko edozein motatako gizarte-baliabide eta -prestazioen osagarriak dira” (GLLren 4/2011 Dekretuaren: 4. artikulua.).

Hori guztia gogoan izanik, agerikoa da eskubide subjektiboak, berez, ez dakarrela zuzeneko onurarik ezinbestean. Askotan aldarrikatzen da subjektibotasuna unibertsaltasunaren sinonimoa izango balitz bezala; ematen du aldea begi-bistakoa dela, baina, hala ere, aldarrikapen horiek gutxitan sartzen dira ñabardura korapilatsu horietan.

Gure kasuan, gainera, bi eskubide subjektiboei buruz ari gara: bakoitzak eduki propioa duen arren, bien arteko lotura zuzena dute. Garai batean, leihatila bakarra lortuko genukeelakoan zeuden arduradun politikari batzuk; ikusten dugunez, aldiz, begiratoki ederra lortu dugu.

Beharbada, sistemen arteko lotura nahasien ondorioz, ñabarduren garrantzia ahaztuta, helburu jasoei garrantzia ematen diegu, interesdun gehienek eta legebiltzarkideek barne. Horregatik, behin eta berriro esan behar da ezinbestekoa dela administrazioen arteko harremanen gaineko hausnarketak egitea, Sistema errenka ez geratzeko. Horrela, Sistemaren berrikuspen lanean, Etxebizitzaren dekretu berria gogoan izan behar da, etxebizitzarako eskubide subjektibo berriak eragina izango duelako, ELOaren eta GLLen onuradunen artean.

Eztabaida bukaezinak izan ditzakegu zehazteko zein den duintasunez bizitzeko lortu beharreko diru-sarreraren gutxiengo maila; baina eztabaida zatika egiten bada, hots, zenbat jateko, zenbat alokairua ordaintzeko, zenbat gasa eta argindarra ordaintzeko, zenbat..., iparra eta gainontzeko puntu kardinalak galduko ditugu. Tamalez, politikariaren arteko eztabaidak horrelakoak izaten dira gehienetan;

behintzat, hedabideak edo esker oneko publikoa aurrean egonda.

Horren ondorioz —edo horrela egin nahi dutelako—, hedabideek (ohorezko salbuespenak izan ezik) benetako informazioa eta hausnarketak eskaini beharrean, bakoitzaren ikuspuntu politikoaren arabera, uneko gai berriztat aurkezten dituzte: txiroen eskubideak defendatzen dituztenek (teorian, behintzat) Sistemaren akatsak eta ganoragabekeriak salatzen edo, ustezko txiroen iruzurrak eta alferkeria salatzen prest dauden datu eztabaidea ezinik mahai gainean jartzeko. Eta horrela ez dago modurik ezer konpontzeko.

7. Ondorioak GLLetarako: burutazio batzuk

Gizarte Larrialdietarako Laguntzek (GLL), alaba gazte guztiek bezala (neuk barne), uste baino lan gehiago ematen dute. Sistemen arteko harremanak ondo antolatzen ez badira, ondorio zuzena izan daiteke GLLa izatea pertsona batzuen/askoren (behin betiko araudiaren arabera) aukera bakarra alokairurako prestazioen bat lortzeko. Aurreko ataletan ikusi dugun moduan, hori gertatuko da tentuz ibiltzen ez bagara ELOaren eta etxebizitzarako prestazio subjektibo berriaren arteko loturak fin-fin antolatzeko.

Orain dela hitz asko, Legez besteko 23/2015 proposamena aipatu dudanean, uste dut argi geratu dela, oro har, gaiak gehiegi nahasten direla, seguru asko, nahasiak direlako, bai gaiak, bai pentsamoldeak, bai herritarren eta legebiltzarkideen giroak. Eta nahasien arteko nahasketa nahasiena, GLLn izaera bera dugu.

Jatorria izenean daukagu: Gizarteratzeko Larrialdietarako Laguntzak asmatu ziren sasoi larrietan (barkatu aspaldiko egia) prestazio puntualak eskaintzeko, familiaren munduak bere onera egin arte. Izen hori izan arren, agerikoa da pertsona batzuen larritasunak iraunkorrak direla edo, bederen, beti betetzen dituztela araudiak egoera larritzat jotzeko ezarritako baldintzak. Horren ondorioz, pertsona batzuek betiko egongo dira laguntza hauen babespean.

Eta horrek zer esan nahi du? Hasierako asmoa aldatu egin behar dugula? Baldintzak bere horretan utzi behar ditugula? Arindu egin behar direla “pobrezia-egoera berriei” aurre egiteko, Legebiltzarrak eskatzen zuen moduan? Gogortu, gure eskuzabaltasunak zentzurik ez duelako iruzur-kiratsa nonahi egonda? Horiek horrela, sinadura ugari omen dauka Legebiltzarrak berak azken ikuspuntu hori defendatu nahian...

Hainbeste nahasketa aipatu ondoren, konturatu naiz agian irakurle ausart baten batek ez dakiela zertarako diren. GLLak erabiltzen dira etxeko gastu orokorreari aurre egiteko; laburbilduz, honako gastu hauek ordaintzeko: alokairua, etxebizitza

erosteko mailegua, energiaren gastuak (hori ez da berria, izen propioekin araudi berrian jaso arren, betidanik ordaindu baitira gastu horiek), etxea mantentzeko edo konpontzeko gainontzeko gastuak, administrazioek bermatzen ez dituen zerbitzuak (dentista, betaurrekoak) eta aurretiko zorpetzea.

GLLen araudiak ezaugarri garrantzitsua du: argi dagoenez, oro har, ezinezkoa dela baldintzak betetzen dituzten pertsona guztiei araudiak ezarritako prestazioak ematea, Dekretuak berak udalal behartzen ditu GLLak murriztera, ahalik eta gehienek jasotzeko prestazioaren bat. Hala eta guztiz ere, ez du zehatz-mehatz aipatzen nola egin behar den; ehunekoen arabera kalkulatu aipatu arren, bideak zabalik uzten ditu bestelako murrizketa-prozedurak ezartzeko. Hori dela eta, udalen arteko aldeak nabarmenak dira:

- Batzuek murrizten dituzte ehuneko jakin batzuk, kontzeptu motaren arabera. Esate baterako, alokairuan araudiaren arabera lortutako emaitzari % 20 kentzen diote, eta etxeko mantenuan % 25.
- Beste batzuek, goian esandakoan salbuespenak ezartzen dituzte; esaterako, ez diete kenketarik egiten gutxiengo pentsioa dutenei.
- Beste aukera bat da kontzeptu-kopuruak murriztea; adibidez, askoz jota bi kontzeptu onartzen dituzte —alokairua eta energia, kasurako— edo bat bakarrik.
- Azkenik, beste batzuek ez dute ezer ere murrizten, eta aurrekontua bukatzen denean zain geratzen dira hurrengo urtera arte.

Bestalde, udal batzuek erabakitzen dute aurrekontu propioa gehitzea Eusko Jaurlaritzak emandako kopuruari eta, gehikuntza horri esker, murrizketa gutxiago egiten dituzte edo, kasu batzuetan, ez dute ezer ere murrizten. Ondorioz, araudi bera izateak ez du bermatzen kopuru bera jasotzea herri guztietan, araudiak berak bidea zabaldu duelako alde horiek egoteko. Jatorrizko asmoa zen herriek duten ezagutza errespetatzea, udaletako profesionalen egoera orokorra eta kasuen gorabeherak ezagutzen dituztelako; hala eta guztiz ere, ondorio hori gainditzea ez da batera erraza.

Bururatzan zaidan bide bakarra da Eusko Jaurlaritzak berak ezartzea murrizketen ezaugarriak, baina horrek ez luke den-dena konponduko, aurrekontu propioa gehitzea udalen erabakia baita eta, aipatu dugunez, igoera horrek zuzeneko eragina baitu behin betiko laguntzetan.

Bestalde, gogoan izan behar dugu esleipenak ezartzeko erabiltzen diren datuak berberak direla denontzat. 2014. ekitalditik hona honako bi irizpide hauek erabili dira: DBEaren onuradunak eta inolako prestaziorik gabe dauden pertsonak.

Aurretik, irizpide gehiago erabiltzen ziren, kalkulua doitu nahian. Dena delarik ere, aurreko irizpideek ondorio bitxia zuten, pertsona batzuk irizpide bat

baino gehiagotan kontuan izaten zirelako. Esaterako, langabezian zegoen emakume etorkin bat hiru aldiz hartzen zen kontuan, bakoitza bere pisuarekin. Agerikoa da pertsona horrek dagokiona behin jasoko duela, ezin baitiogu kopuru hori hirukoiztua ordaindu. Beraz, zergatik hartu kontuan hiru aldiz?

Uste dut esleipenak kalkulatzeko irizpideen gaineko hausnarketa handirik ez dagoela, nik dakidanez, behintzat. Onak izan, txarrak izan, ez dago horren gaineko proposamenik, aldatu zirenean Sailak aztertuko lirakeela formalki argitu arren, eta susmoak baino ez ditut hori ulertzeko: erabiltzen diren irizpideak toki guztietan era berean erabiltzen direlako, ideia berri askorik ez dagoelako, uste delako Sailak ez duela kasurik egingo... Azken horri dagokionez, proposamenak ezeztatu ziren udal jakin batzuen aldekoak zirelako edo pertsona mota batzuk bikoiztea proposatzen zutelako, lehen aipatu dudan moduan.

GLLa eskubide subjektiboa izateko aldarrikapenak, berriz, askotan entzun ditugu. On ustean egindako proposamenak izan arren, ez dituzte kontuan hartzen ez GLLen ezaugarriak, ez Sistemaren testuinguruan daukaten garrantzia. Eta Susan Georgek liburu berean (2004) esaten duen moduan: “batailak galtzeko biderik onenetariko bat da estrategiak oinarritzea premisa faltsuetan eta ilusioetan”.

Nire ustez, une honetan GLLa eskubide subjektiboa izateak ez du helburu nagusia izan behar. Horrek ez du esan nahi argi duenak aukera hori ahaztu behar duenik, baizik eta, benetako nahi horrekin batera, beste proposamen batzuk prest izatea komeni zaiola. Erabateko iraultza asmo bakarra bada, aukerak galtzen dira aurrerapauso txikiagoak lortzeko. Berrito ere, gogoratu behar dugu daukagun Legebiltzarraren —eta gizartearen— jarrerak eta iritziak (eta hurrengo Legebiltzara ere, seguru asko, oso antzekoa izango da), ez pentsatzeko etorkizunak aldaketa harrigarriak eskainiko digula.

GLLei dagokienez, orain funtsezko helburua da etxebizitzarako eskubide subjektiboa lortzeko baldintzek ez gogortzea DBEarenak (eta ondorioz, ELOarenak). Hori lortzen bada, udalek ez lukete euren gain hartu behar orain arte Lanbidek ematen dituen prestazio askoren erantzukizuna.

Bestalde, egun udalek kudeatzen dituzten alokairu-prestazio asko Etxebizitzaren eskumena izango lirakeke. Txalorik egin baino lehen, gogoratu behar dugu ELOa indarrean sartu zenean, GLLen aurrekontua gutxitu egin zela, aurreikusitako proportzioan, alokairuan bizi ziren DBEaren onuradunei ELOa ordaintzeko.

Hori guztia kontuan izanda, aurrekontu orokorra gehitzen ez bada, benetan egiten ari garena da aurrekontu-partidak zerbitzu batetik bestera pasatu. Begi-bistakoa dena errepikatzea barkatu diguzuelakoan nago, begi-bistan dauden gauzak, batzuetan, ez ditugulako kontuan hartzen. Hortaz,

bat-batean udalek ez dute esleipena handiagorik izango gainontzeko gastuei aurre egiteko. Ildo horretan, eta Sistemaren oinarritzko ezaugarriak aldatzen ez badira, lehentasunak finkatzeko irizpideek (arestian aipatu ditut) beren horretan jarraituko dute, Legeak berak irizpide praktikoko zehatzagorik ezarri ezean (edo dekretuaren bidez garatzeko beharra), gutxienez, herrien arteko aldeak gutxiagotzeko.

Bide horretan, iaz Euskadiko Toki Erakundeen 2/2016 Legeak ezarritako konpentsazioak ez du bermatzen etorkizunean antzeko zerbait izango dugunik, 8. Xedapen Iragankorrek ezarri baitu prozedura hori araudia berrikusi arte. *Grosso modo*, zenbaki askorekin mundua nekatu gabe, konpentsazioaren gehiengo kopurua izango litzakete esleipenaren % 30¹⁰; hala ere, 2016 ekitaldiari zegokion konpentsazioa horren erdian geratu da. Ikusiko da zer gertatzen den hurrengo urtean.

Ikusita nondik joaten ari diren Sistema berrikusteko proposamenak, eskertuko nuke Oinarrizko Gizarte-Zerbitzuetako profesionalen iritziak eta hausnarketak ofizialki aurkeztea, azken urteotan gertatutakoa funtsezkoa baita proposamenen ondorioak aurreikusteko, onerako edo txarrerako. Esaterako, kasu askotan, DBEa galtzen dutenak —eta baldintzak betetzen ez dituzten gehienak— udal-zerbitzuetara joaten dira laguntzaren bila; ondorioz, egoera larrienen gorabeherak ondo asko ezagutzen dituzte. Era berean, gure arloetan lan egiten duten Hirugarren Sektoreko profesional askoren ikuspuntuak ere interesgarriak izango dira, araudiaren baldintzak betetzen ez dituztenek —eta betetzen dituztenek beste hainbeste— elkarteen babesa izaten baitute.

Lehen urratsa Legea berrikustea izango da, eta horren ondorioz Lege hori garatzeko dekretuak prestatu beharko dira. Legeak ildo nagusiak ezarriko ditu, baina dekretuek ildo horietatik baldintzak eta ezaugarriak sakondu beharko dituzte, ñabardura guztiak ezarri arte. Bi prozesu horietan funtsezkoa da profesionalen parte hartzea. GLLen Dekretua aldatu zenean oso interesgarria izan zen Gizarte Langileen Elkargoen eta Hirugarren Sektoreko entitate batzuen parte hartzea. Gaur egun, aukera gehiago dago proposamenak egiteko, ez baikaude lotuta, orduan bezala, DBEaren Dekretua eta Legea bera ukiezinak zirelako.

Azkenik, uste dut GLLen espiritu galdua egokia izango litzatekeela gaur egun Sistema osoa goitik behera berrikusiko balitz, hau da, diru-laguntzen sistema bakarra izango bagenu: benetako leihatila bakarra, ez gaur egun daukagun begiratoki paregabea. Nire ustez, pertsonak behar duten arretari eta kudeaketari berari dagokienez, zentzu gehiago izango luke kudeaketa konbinatuak: Oinarrizko Gizarte Zerbitzuan hasita —herritarrekiko

gertutasuna kontuan izanda—, Lanbiden bukatuko litzateke, prestazioen ebazpenak eta ordainketak egiten. Egia esan, ez dut kerik asmatu: kudeaketa horrek zerikusi handia izango luke aurrekoarekin; aldea izango litzateke espedienteen ebazpena bateratua egongo litzatekeela. Kudeaketan parte hartzen duten guztiek, gainera, aplikazio informatiko bakarra erabiliko balute (anatemaren bidean sartu naiz hori esateagatik), kudeaketa erabat erraztuko litzateke. Eta aplikazio berbera oinarria izango balitz DBEa eta GLLak kudeatzeko, esan beharrik ez, denon lana askoz gehiago arinduko genuke.

Ez dut inoiz ulertu aplikazio propioak izateko grina, entitate bakoitzak aplikazio bana izatearen behar hori: askoz diru gehiago beharrezkoa da, planifikazioa oztopatzen da, herritar bakoitzari dagokion informazioa batzea oso zaila da... Orain dela urte batzuk, azalpen zentzuzkoren bat aurkitzen nuen, baina gaur egun horrela jarraitzea —okerrago, akaso, elkarreragingarritasun zerbitzuak asmatzen— zentzugabekeri hutsa dela argi daukat.

Agerikoa da proposamen horrek dakarrela sakoneko azterketa (pertsonek beharretatik kudeaketaren xehetasun txikienetaraino), lasaitasunez gain —parte-hartzaileak, meditazioan hasi baino lehen, euren iritzietan ez tratatzeko—, eta ahalik eta presa gutxienean, ezinbesteko planifikazioak beharko baititu ehoziri-lanaren ñabardurak.

Ihesik ez egin! Sistemaren langile zareten guztiak! Ikuspuntu horrek ez baitauka laguntxo askorik (beste bi edo hiru; ero ausartak, gero) eta nire proposamenaren porrota bermatuta daukazue, berrikuste honetan, behintzat. Hala eta guztiz ere, adorea nekez galtzen dudanez, behar den tokitan defendatuko dut posiblea dela, herritarren mesederako eta —inork ez sinetsi arren— baita ere administrazio zerbitzu guztietan lana egiten duten profesionalentzako (hasierako urduritasuna gainditu ondoren, nola ez). Traba nagusia da denok prest egon beharko genukeela aldatzeko, eta badakigu zein gutxi gustatzen zaigun hori...

8. Kudeaketaren gorabeherak

Bart plazer berri bat asmatu nuen, eta lehen aldiz gozatzera prest nengoela aingeru bat eta deabru bat elkarrekin nire etxera presaka heldu ziren. Biak zeuden nire atearen parean eta haien artean eztabaidatzen hasi ziren nire plazer asmatu berriari buruz. Batek garrasi egin zuen: “Bekatua da!”. Eta besteak era berean: “Bertutea da!”.

GIBRAN JALIL GIBRAN (1988)

Edozein interesdunek irakurtzen baditu Lanbideren kudeaketaren gaineko txosten kritikoak argi izango du zeintzuk diren errepikatzen diren arazoak. Lanbideko langile batzuekin hitz egin ondoren, gai horiek guztiak ulertzeko bestelako ikuspuntuak izango ditu. Alderdi bi horien iritziak nahitaezkoak dira arazoak bere osotasunean ulertzeko.

¹⁰ Kontuan izanda 2016ko guztizko esleipena 23.000.000 eurokoa izan zela, esandako % 30a, hau da, gehienezko konpentsazioa, 6.900.000 eurokoa izango litzateke.

Legea berrikusteko eta, batez ere, Lege berria garatzeko landuko diren dekretuen edukia erabakitzeke, oso garrantzitsua izango da gai horiek banan-banan aztertzea, arazo gehienek sorrera anizkuna izango baitute. Adibide pare bat erabiliko dut esan nahi dudana azaltzeko: lehena oso ezaguna da eta bigarrena —ondorio larriak izan arren—, ez da hain famatua.

a. DBEaren etendurak

18/2008 Legearen 26. artikulua edukia oso orokorra da, eta 147/2010 Dekretuaren 43. artikulua azalpen batzuk gehitu arren, alderdi zalantzarri batzuk zintzilika geratzen dira. Oro har, etendura sortzen da baldintzaren bat betetzen ez bada, eta askotan salatu da proportzionaltasun eza etendura erabakitzeke; esate baterako, enplegu-eskaria berritzeko hitzordura ez joateak etendura dakar (hilabetekoa), baita EAEtik kanpo joateak (hilabete edo azkentzea, denboraren arabera), edo enplegu bati uko egiteak (urte bete) ere.

Hiru egoera horiek sortzen dituzten ondorioak oso desberdinak dira: lehena ahazte hutsa izan daiteke, bigarrena susmagarria da (alde batetik abisatu gabe joan delako eta, bestalde, mugitzeak dakarren gastuarengatik), eta hirugarrena oso larria, benetako arrazoia izan ezean.

Beharbada araudiak eskertuko luke onartzen diren egoera jakin batzuen zerranda, argiago garatzeko zer dakarren baldintza bakoitza ez betetzeak; hala eta guztiz ere, kasuistika guztia jasota geratzea ezinezkoa da. Seguru asko enpleguarekin zerikusia dituzten egoerak dira korapilatsuenak: araudiak “indarreko legediaren arabera egokia den enplegua”¹¹ aipatu arren, beti ez dago argi zer esan nahi duen “egokia” horrek, batez ere, enplegu berbera egokia izan daitekeelako pertsona baten kasuan eta guztiz kontrakoa beste batentzako.

Hala eta guztiz ere, ahaztearena ere korapilatsua izan daiteke. Noraino onartu behar da izapideak (hitzorduak, BUak izandako aldaketak edo bidaiak Lanbideri jakinaraztea) bete gabe uztea? Zenbat aldiz gogorarazi behar dizkio administrazioak herritarrari ezarritako baldintzak? Lanbidek antolatu behar du abisu zerbitzuren bat, BETI On zerbitzua izango balitz bezala? Non dago bakoitzaren erantzukizunaren muga?

¹¹ 4/2011 Legea: Hamargarren artikulua.- 19. artikuluko 2.b idatz-zatiari idazketa berria ematen zaio:

Lanerako prest egoteak barne hartzen du etengabe izena emanda egotea enplegu-eskatzaille gisa, indarreko legediaren arabera egokia den enplegu bati uko ez egitea, enplegutik ez behin betiko ez aldi baterako borondatezko bajarik hartzea, eta lan-eszedentziarik ez hartzea justifikatutako arrazoi oso estremorik izan gabe.

b. Egoera ekonomiko bereziak kontuan hartzeko beharra

Sistemaren araudiak zehatz-mehatz aipatzen ditu kontuan izan beharreko diru-sarrerak eta kontuan izan gabekoak. Gastuei dagokienez, aldiz, oso aukera gutxi ematen digu kenketak egiteko: PFEZ, Gizarte Segurantzza, eta epaiak.

Horrela, familia bateko diru-sarrerak nahikoak izan arren, gastuen maila ohikoa baino askoz altuagoa bada, gastu berezi horiek kontuan izaten ez direnez, behin betiko egoera ekonomikoa benetan larria izan daiteke. Testuinguru horretan, adibide nagusiak dira desgaitasun edo mendekotasun-egoeran dauden pertsonak, egoera hori oraindik ofiziala ez izan arren. Oro har, pertsona horiek guztiek oso gastu handiak dituzte, batez ere, etxean laguntza izateko eta, kasuen arabera, bestelako beharrak ordaintzeko (aulki gurgildunak, ohe bereziak, tratamenduak)

Izaera subsidiarioa aipatzen nuen moduan, esan behar da Sistema honen bidez ezinezkoa dela pertsona horiek dituzten behar guztiak betetzea; hala eta guztiz ere, uste dut badaudela aukerak gutxiengo batzuk lortzeko, esaterako, DBEaren bidez osagarriren bat lortzeko edo etxeko oinarrizko gastuei aurre egiteko prestazioak izateko.

Gainera, ikuspuntu ekonomikotik, administrazioen erantzukizun guztiak kontuan izanda, helburu nagusia bada ahalik eta pertsona gehienak etxe propioan bizitzea, egoitzetan egon beharrean, Sistemak badu aukera helburu horri bultzada txiki bat emateko.

Adibide gehiago egon arren, sakoneko hausnarketa egiteko, gorabehera horien sorrerarengana jo behar dugu, kutsu filosofiko eta guzti, batzuentzat soberan egon arren, ‘gertaerak’ ulertzeko. DBEaren kudeaketak beti izan ditu arazoak; foru-aldundiek ere arazo ugari izan zituzten, nahasteak ez baitziren sortu, bat-batean, onddo baten azpian, kudeaketa Lanbidera pasatu zenean, sorginkeria zela medio. Kudeaketa hori benetan zaila da bere gain hartzen dituelako egunerokotasunaren alderdi asko: egoera familiarak, ekonomikoak, eta horien guztien isla administratiboa; eta horiek guztiak oso aldakorrek dira. Pertsonak etorkinak badira, arazoak bikoiztu egiten dira —jatorrizko herrialdeetako agiriak, izapideak, eta, zer esanik ez, ohitura erabat desberdinak direla, eta horrek elkarrekiko ulermena zailtzen duela, eta, batzuetan, arazoa ez da hizkuntza, baizik eta kontrako pentsamoldeak.

‘Planifikazioaren gezurra’ aipatu dudanean, ez dut kontuan hartu gure testuinguruan izandako beste ezaugarri bat, beharbada, arazo askoren oinarria. Aurreko kudeaketa-sisteman Oinarrizko Gizarte-Zerbitzuek eskabidea jaso, lehen hausnarketa egin eta, ondorioz, proposamen bat zegokion Foru-Aldundira bideratzen zuten, erakunde horrek azken erabakia har zezan. Aldaketaren ondorioz,

erakunde bakar batek dena egiten zuen (hasieran oso prestakuntza laburra izan ondoren), eta gizarte zerbitzuen parte-hartzea desagertu zen. Espediente askoren kasutan, horrek ez du kalterik egiten, egoera oso argi baitago eta ez dagoelako interpretazioaren beharrik. Beste kasu batzuetan, aldiz, kasuak ez du zehatz-mehatz betetzen araudiak diena eta, ondorioz, kudeatzaileak bi aukera ditu: argi ez dagoena interpretatu (eta horretarako jarrera egokia izateaz gain, ezagutza sakona ere behar da), araudiaren ildo nagusitik joanda; edo argi ez dagoena ezeztatu, araudiak ez baitu jasotzen. Bidean, egoera batzuk sarritan errepikatzen badira, kudeatzaileak pixkanaka interpretazioak metatzen ditu eta, bukaeran, irizpide mordo propioak ezartzen ditu, ezinezkoa delako araudiaren aldaketaren zain gotea.

Orain arte horrela egin dugu aurrera, araudiaren ahoan. Zein da korapilo gaineratua? Interpretazio bide horretan ez dela egon gizarte-zerbitzuek gehitzen zuten ikuspuntua. Egoera hori, berez, ez litzateke txarra izango gure araudia askoz zorrotzago izango balitz, hau da, langabezien prestazioen estilokoa. Baina araudiak baditu bideak salbuespenak eta ikuspuntu zabalak proposatzeko; hori bai, sakon ezagutu behar da bidexka horiek erabiltzeko.

Sistemaren aldaketa asmatu zenean aurreko esperientzia alboan utzi zenez, udaletan, foru aldundietan, eta Eusko Jaurlaritzan bertan, pilatutako ezagutza —batez ere, kasuistikaren bidez landutako interpretazioa— galdu egin zen. Bestalde, arduradun eta langile berriek, zerotik hasita, ahal zutena egin zuten, presiopean, horrek eskaintzen duen laguntza goibel guztiarekin. Horrela, desadostasunak bermatuta zeuden: ezagutza zuenak ezin zuen ulertu zer demontre erabakitzen ari zen; kudeaketa berria egiten duenak ezin zuen ulertu zergatik kritikitzen zen bere lana araudiaren irakurketa zorrotza eginda ere; erdian egon garenok, ezin genuen tutik ulertu.

Orain, gauzak zertxobait aldatu dira. Hala ere, giroa ez da izan dezakegun onena, orain ezagutza bi motakoa baita: alde batetik, tradizionala, hots, interpretazioan gizarte-zerbitzuen kutsua duena; bestalde, ezagutza berria dutenena, 2011tik hona DBEaren kudeaketan buru-belarri egon direnena, interpretazioetan arlo juridikoak kutsua nagusitzen. Berrito ere, orekaren bila ibili behar. Araudia berrikusteko bidean, aukera egongo da denon ikuspuntuak kontuan izateko. Hala ere, beharrezkoa izango da bakoitzak “gertaerak” berak ikusten dituen moduan ulertzeaz gain, gauza izatea parean dagoenaren moduan ere ikusteko.

Nire esperientzia pertsonalaren arabera (barkatuko didazue harrokeria, baina nik baino madarikazio gehiago, jendaurrean eta arlo pribatuan, pertsona gutxik bota dutelakoan nago) ganorazko emaitzak lortzeko ezinbestekoa da honako bilakaera hau egitea: pentsatzen dugunean nola den posible pertsona batek hain astakeria izugarria botatzea,

lortu behar dugu —arrisku-salto itzela egin ondoren— pertsona horri galdetzea —eta haserretu gabe, hortxe azken zilipurdia— zergatik pentsatzen duen pentsatzen duena. Ustekabe apartak izango dituzue, askotan funtsezko gaietan bat gatzoz eta. Baina esandakoa ez da batere erraza, eta beti ez da lortuko: batzuetan ez da lortu nahi, beste batzuetan lortzen da pertsona jakin batzuen artean, arrakasta orokorrik gabe, eta besteetan gainontzekoentzat astakeria benetako astakeria da.

9. Koordinazioa, iruzurra eta beste gai delikatu batzuk

Irrigarria da zure gaiztakeria eragozten ez saiatzea, egin baitaiteke, eta, ostera, besteena eragozten saiatzea, ezin baita egin.

MARCO AURELIO (1983)

Sistemen arteko koordinazioak artikulua propioa merezi duen arren, oinarrizko zertzelada batzuk aipatuko ditugu, eta lehena bistan dago: administrazioen arteko hitzarmenak sinatzea ez da koordinazioaren sinonimo. Benetako gogoia behar-beharrezkoa da, eta hori lortzeko Sistemako profesional guztiak beharra ulertu behar dute eta prozedurak oso garbi izan behar dituzte.

Profesionalen artean denetarik dago, santutasun bazterretik Melvillen Bartlebyren (2015) —“nahiago ez egitea” beti esaten zuena— txokora antolatzen den *continuum* horretan, eta horien guztien lana zuzen antolatzeko, behar bada, lehen urratsa da ezartzea herritar guztiak Sistemaren atal guztien lan koordinatua behar ote duten.

Azken urteotan behin eta berriro hitz egin da pentsiodunei buruz, ez baitauka zentzurik pertsona horiek Lanbidera joatea DBEaren izapideak betetzea; eta proposamenak badaude kudeaketa-prozedura horiek automatikoak izateko. Bestalde, oso egoera nahasian dauden pertsonak ere aipatu dira, kasu jakin batzuetan Lanbideren zerbitzuak ez baitira egokiak, baina nire ustez bide horretatik ez da gehiegi sakondu.

Dena den, kasu batzuetan Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen eta Lanbideren arteko harreman zuzena ezinbestekoa delakoan nago, batez ere, lortzen bada kontaktuak ezartzea DBEaren kudeaketak ondorio larriak izan baino lehen. Azken urteotan DBEaren etendurak izan dira adibide nagusia.

Etenduraren gorabehera orokorrak berrikusi arren, uste dut beharrezkoa dela koordinazio-prozeduraren bat ezartzea etendura gauzatu baino lehen, gutxienez egoera jakin batzuetan: adin gabekoak, adineko pertsonak edo osasun-arazoak dituen kideak baldin badaude unitate horietan. Hasierako biak erraz batean egiaztatzen dira adinaren arabera; osasun arazoek, aldiz, gizarte zerbitzuek alde aurretik emandako informazioa beharko lukete.

Baina benetako arazoa ez da koordinazio hori antolatzea, baizik eta gero erabakitzea zer egiten den kasu horietan, arazo gehiago izan arren, pertsona horiek araudiaren baldintzak bete beharko dituztelako, gainontzekoek bezala. Adibide bat jarriko dut, uste baino ohikoagoa. Familia bat DBEa eta ELOa jasotzen ari da. Etxebidek eskaintzen die babes ofizialeko pisua eta uko egiten diote. Argudioa da alaba txikiak osasun-arazoak dituela eta etxe hori ez dela egokia han bizitzeko. Etxebidek ez du onartzen argudio hori etxebizitza ondo dagoelako, eta, ondorioz, Lanbidek ELOa kentzen die. Orduan udaleko gizarte-zerbitzuetan GLLa eskatzen dute alokairua ordaintzeko. Zerbitzu horrek ere uste du eskaintza ukatzeko arrazoiak ez zeukala fundamenturik, baina, bestalde, uste du familia ezin dela prestaziorik gabe utzi, umeak eta amama ere batera bizi direlako.

Lehen ikusten genuen moduan, Sistema bereko bi zerbitzuek kontrako erabakiak hartzea ez da nahasterik txarrena, baizik eta halako kasuetan irtenbidea aurkitzea, argi badago erabakiaren erantzukizuna gurasoena izan dela, baina ondorioak umeek eta amamak pairatuko dituztela. Ikuspuntu malguak, kontuan izanda errugabeen egoera, prestazioak proposatuko ditu, interpretazio malgua dela medio edo udalak jarritako aurrekontua aprobetxatzea araudiaren gaineko zalantzarik ez izateko. Ikuspuntu zorrotzak, ezeztatuko du proposamena, eta pertsona horien azken aukera izango da elkarteren baten laguntza izatea (beharbada, aurrekontu hori ere administratibotik dator, adibidea gehiago korapilatuzko).

Nire ustez profesionalen jarrerak zuzeneko lotura du daukaten esperientziarekin eta pertsonekin daukaten harremanarekin. Alde batetik, ez da gauza bera familiaren gorabehera gehienak ezagutzea edo prestazioak kudeatzeko beharrezko dokumentazioa besterik ez ikustea. Bestalde, oso bestelakoa da pertsona baten aurrean egotea edo espedienteak aztertzea, pertsonak ikusi gabe. Era berean, oso desberdina da antzeko zerbait behin gertatzea, edo estilo horretako erabakiak hartzea behin eta berriro; esaterako, hurrengo eskaintza ere ukatzea, eta hurrengo hilabetean bertan behera uztea lanpostu bat lortzeko aukera.

Jakin badakit batzuetan uko egiten dela etxebizitza hori onartzeak gastu asko dakartzalako (zerbitzuen konexioak, altzairuak, tresna elektrikoak). Demagun berrikusteari esker araudi berriak kontuan izaten dituela gorabehera horiek guztiak; hala ere, norbaitek uko egiten du daukan etxebizitza udalerrriaren erdigunean dagoelako eta eskaini diotena oso urrun dagoelako, auzo berri batean (hori ere benetako adibidea da). Zer egingo genuke familia horrekin?

Egoera mota horiek —eta interpretatzeko antzeko zailtasun dituzten beste hainbestek, aurreikusi gabe geratu direnek— berriazko arreta beharko lukete, helburu horrekin sortutako batzorde teknikoren

batek eskain dezakeena, lehen aipatutako ezagutza motak kontuan izango lituzkeena. Kasuistika zailenaren edo bitxienaren azterketak dakar, *ad hoc* egindako hausnarketei esker, ezagutza metatzea, herritar guztien mesederako eta baita Sistemaren onurako ere.

Alderdi horiek guztiak lotura zuzena dute daukadan uste osoarekin: Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen parte hartzeak Sistemaren prestazioen kudeaketa erraztuko eta hobetuko luke, eskubide bikoitza famatua errespetatzea ezinbestekoa delakoan bagaude —alde batetik, oinarrizko beharrei aurre egiteko baliabide ekonomikoak izateko eta, bestetik, gizarteratzeko babes pertsonalizatua izateko—.

Hasieratik hainbat alderdiengatik azaldu izan nahi dudan moduan, araudia berrikustek ez du dena konponduko. Marco Aurelio zaharrak bere aitari eskertzen zizkion gaitasun batzuk izatea, eta horien arteko hau guk ere eskertuko genuke: “urrutitik egindako aurreikuspena eta ñabardura hutsalenen aurretiko erregulazioa agerraldi tragikorik gabe”.

Gure arloan esaldiaren bukaerak badu bere saltsa, gurean (beharbada, toki guztietan, bidai gutxi egin ditut eta) arazoak erabiltzen direlako beita gisa. Joera horri esker, askotan gaiak nahastu dira eta kudeaketak sortutako ondorio txarrak iruzurra izango balira bezala saldu dira; bestalde, talde batzuek iruzurra ukatu dute, tranpa zaleak beste planetakoak izango balira bezala. Agian, bai lehen taldekoek, bai bigarrenengoek, uste dute egia aldarrikatzen ari direla, baina, nire ustez, biak aldarrikatzen ari dira oso ikuspuntu alderdikoak.

Eskema txiki batean jasoko ditugu Sistemaren ustezko onuradun gehienak:

1. Egoera larrian daudenak, onuradunak izateko baldintzak betetzen dituztela.
2. Egoera larrian daudenak, baina baldintzaren bat (edo asko) betetzen ez dutenak. Ez dute ezer jasotzen.
3. Bigarren taldekoak, eskubidea lortzeko zerbait asmatu dutenak. Ohiko adibidea: agiri faltsuak erabiltzea.
4. Nahikoa dute bizitzeko baina erabaki dute gezurraren bat esatea prestazioak lortzeko. Ohiko adibidea: bikotea umeekin, erroldan ama eta umeak besterik ez daude, eta familiak guraso bakarrekoa izango balitz bezala egiten du eskabidea.
5. Lanik egin gabe edo lan gutxi eginda bizitzea erabaki dutenak, laguntzekin moldatzen direlako.
6. Lanik egin ezin dutenak (arazo fisikoak edo mentalak) eta oso egoera larrian daudenak, baina Sistemarekin harremanik ez dutenak.

Beharbada zerbait ahaztu dut, baina hortxe denetarik daukagulakoan nago. Gure lanak zerikusia baldin badauka diru-laguntzen kudeaketarekin, ziur asko

gauza izango gara izen jakin batzuk atal bakoitzean kokatzeko. Bestalde, eskatzen badigute proportzioak finkatzeko, talde bakoitzean zenbat kasu dauden kalkulatzeko, gure ikuspuntu filosofikoaren arabera, oso bestelako ehunekoak markatuko genituzke atal berean.

Oinarrizko errenta lortuko balitz¹², horrek ez luke garrantzirik izango, baina gure errealitatean uste dut baduela, batez ere, iruzurraren susmo handiena etorkinen gainean dagoelako, iruzurra kanpotarren asmakizuna izango balitz bezala, herritar peto-petoak izateaz gain, garbiak eta aratzak baikara. Eskema horrek beste bi zutabe beharko lituzke, ustezko zintzoak eta ustezko gaiztoak markatzeko, denetan denetarik baitago, beste pellokeria bat botatzea onartzen badidazue, bederen.

Zein da aldea? Laugarren atalean esandako bikotea gezurretan harrapatzen badute, denetarik pentsatuko dugu, baina nekez zabalduko dugu susmoa guraso bakarreko familia guztien artean. Hirugarren kasuko iruzurra etorkin batek egindakoa izango balitz, aldiz, etorkin gehienek adibide gisa erabiliko genuke.

Adibide horiek erabili ditut araudiaren gaineko hausnarketak egiterakoan biderik zuzenena kasuistika erabiltzea delako. Egunerokotasunean, zorigaiztoz, iruzur-susmoa duten kasuek eta aurpegiandikoez lan asko sortzen dute (egoera beldurgarriak barne), edozein kasu korapilatsuk baino gehiago; eta arazoa ez da lana bera, baizik eta zabaltzen den mesfidantza-giroa.

Kudeaketan dihardutenaren lehen gogoeta ez da izango ikusi dituen berrogei kasu “normalak” —oso egoera larriak ikusita ere—, baizik eta nahasietan ibili denarena, edo eskubideak aldarrikatzen dituenarena inolako erantzukizunik onartu gabe. Justuek bekatariek egindakoak ordaintzen dituztela ez da tontakeria.

Batzuen ustez, nahasi eta tranpa horietan dabiltzanek musu-truk bizi nahi dute,

administrazioari esker edo, hobe esanda, denon diruari esker. Hala eta guztiz ere, horrelakoak badaudela onartu arren, uste dut nahasi eta tranpa horietan daudenek, askotan, ez dutela nahikorik bizitzeko —ez lanbiderik, ez aukerarik, ez itxaropenik—, eta edozein aukera aprobetxatuko dute oinak lokatzetatik ateratzeko, denok egingo genukeen moduan.

Pertsonak zuzen kokatzea, bakoitzak dagokion taldean —aurpegi handia, behar handia (edo horien bien nahasketa)—, oso helburu zaila delakoan nago eta, zoritxarrez, oso erraza da biak parekatzea, txarrerako edo onerako. Bidean hanka-sartze asko egingo ditugu, baina —agian—, lortuko dugu bigarren taldekoak ez bihurtzea lehen taldeko kideak, nahi gabe izan arren, Sistemak, gainontzeko zerbitzuek, edo gizarteak berak ez dietelako itxaropenik eskaintzen.

Arlo honetan gauden guztiok aukera daukagu gure iritzia emateko; beste kontu bat da zer egingo duten arduradunek gerora gure proposamenekin, izan Legebiltzarrak, izan hedabideek. Pertsona askok kafeetan konpontzen dute mundua, baina hortik kanpo ez dute gauza askorik esaten, uste dutelako ez daukala zentzurik, indarra alferrik galtzea delakoan baitaude.

Horientzako, eta guztientzako, Jon Sarasuak (2010) oparitu zigun oso istorio aproposa. Egia esan, Brasilen norbaitek *beija-flor*ren istorioa kontatu zion berari. “*Beija-flor* kolibria da, Brasilgo txoririk txikiena”, eta hona hemen istoriotxo, txiki-txikia, txoria bezalakoa:

Suak hartu omen zuen behin oihana. Animalia guztiek zitzu bizian alde egin zuten, dena utzita. *Beija-flor*rak ere bai, baina errekatik mokoan ura hartu eta suari tanta bat botatzera itzuli omen zen. Ondoren berriz, eta gero berriz. Esan zioten alferrik ari zela, ez zuela sutea horrela itzaliko. Erantzun zien bazekiela, baina hori zela berak egin ahal zuen apurra.

¹² Oinarrizko errentak dakar herritar guztiek eskubidea izatea. Beste kontu bat da hori hobe den, ezartzen diren kopuruak gure Sistemarenak baino txikiagoak baitira. Baina hori beste eztabaida bat da.

Aipatutako bibliografia

- BAUMAN, Z. (2017): *Retrotopia*, saila Estado y Sociedad, Bartzelona, Paidós.
- (2009): *Ética posmoderna*, Madril, Siglo XXI.
- GEORGE, S. (2004): *Otro mundo es posible si...*, saila Encuentro, Bartzelona, Icaria; Intermon Oxfam.
- GIBRAN JALIL GIBRAN (1988): *El profeta. El loco. El vagabundo*, Madril, Akal.
- HUXLEY, A. (2009): *La isla*, saila Pocket, Bartzelona, Edhasa.
- INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILA (2017): “Agindua, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailburuarena, Etxebizitza Duin eta Egoki Bat Legez Okupatzeko Eskubide Subjektiboari buruzko Dekretu-proiektua prestatzeko prozedura abiatzekoa”, Gasteiz, Eusko Jaurlaritza [http://www.legegunea.euskadi.eus/x59-contfich/eu/contenidos/tramita_decreto/dncg_dec_135117_17_05/eu_def/index.shtml].
- KAHNEMAN, D. (2014): *Pensar rápido, pensar despacio*, Bartzelona, Debolsillo.
- MARCO AURELIO (1983): *Meditaciones*, Madril, Gredos.
- MELVILLE, H. (2015): *Bartleby, el escribiente*, Madril, Nórdica Libros.
- EUSKADI (2017): “16/2017 Dekretua, urtarrilaren 17koa, gizarte-larrialdietarako laguntzei buruzko Dekretua aldatzen duena”, *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*, 16. zk., 17-1-24 [https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2017/01/1700417a.shtml].
- (2017) “2/2017 Legea, apirilaren 11koa, Euskal Autonomia Erkidegoko 2017. urteko Aurrekontu Orokorra onartzen dituena”, *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*, 74. zk., 17-4-19 [https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2017/04/1701927e.shtml].
- (2011): “4/2011 Dekretua, urtarrilaren 18koa, Gizarte Larrialdietarako Laguntzei buruzkoa”, *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*, 27. zk., 11-2-9 [https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2011/02/1100673e.shtml].
- (2011): “4/2011 Legea, azaroaren 24koa, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Legea aldatzen duena”, *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*, 233. zk., 11-12-12 [https://www.euskadi.eus/r47-bopvapps/eu/bopv2/datos/2011/12/1105924e.shtml].
- (2010): “147/2010 Dekretua, maiatzaren 25ekoa, Diru-Sarrerak Bermatzeko Errentari buruzkoa”, *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*, 114. zk., 10-6-17 [https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2010/06/1003020e.shtml].
- (2008): “18/2008 Legea, abenduaren 23koa, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko”, *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*, 250. zk., 08-12-31 [https://www.euskadi.eus/r47-bopvacci/eu/bopv2/datos/2008/12/0807235e.shtml].
- (2001): “Agindua, 2001eko otsailaren 14koa, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza sailburuarena, oinarriko errentaren titularrentzat eta gizarte-larrialdietarako laguntzen onuradunentzat lanean hasteko pizgarriak ezartzeko dena”, *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*, 37. zk., 01-2-21 [https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2001/02/0100962e.shtml].
- EUSKO LEGEBILTZARRA (2017): “23/2015 Legez besteko Proposamena, gizarte-larrialdiko laguntzak arautzeko dekretua egokitzeari buruz (Osoko

- Bilkuraren erabakia)”, *Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofiziala*, XI. legegintzaldia, 15. zk., 17-2-17, 1.295-1.296 or. [http://www.legebiltzarra.eus/sm_abopve/DDW?W=boe_clave=%2711110201004920170217001295%27].
- (2016): “32/2016 Legez besteko Proposamena, etxebizitza duin eta egoki bat legez okupatzeko eskubide subjektiboa eta etxebizitzako prestazio ekonomiko berria erregelamenduz garatzeari buruz (Osoko Bilkuraren erabakia)”, *Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofiziala*, X. legegintzaldia, 169 zk., 16-4-22, 33.047 or. [http://www.legebiltzarra.eus/sm_abopve/DDW?W=boe_clave=%2710110201090920160422033049%27].
- (2015): “23/2015 Legez besteko Proposamena, gizarte-larrialdiko laguntzak arautzeko dekretua egokitzeari buruz (Osoko Bilkuraren erabakia)”, *Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofiziala*, X. legegintzaldia, 117 zk., 15-3-13, 22.169 or. [http://www.legebiltzarra.eus/sm_abopve/DDW?W=boe_clave=%2710110201069320150313022169%27].
- SARASUA, J. (2010): *Ertzeko zatiak*, Lasarte-Oria, Argia.
- SARRIONANDIA, J. (1997): *Hitzen ondoeza*, Tafalla, Txalaparta.
- URIBE, K. (2016): *Elkarrekin esnatzeko ordua*, saila Narratiba, Zarautz, Susa.